

# Durango eraaldatuko duen plana

Trenak libre utzitako lurretarako planaren berri eman du Eusko Jaurlaritzak. 550 etxe, berdeguneak, jolastokiak... Erabaki plataformak galdeketa eskatu du berriro. Zenbait herritarrek planari buruz iritzia eman dute erreportajearen. • 2-3



*“Saskibaloitari lotuta jarraitzea gustatuko litzaidake; mundu hau asko gustatzen zait!”*



**Nerea Larrazabal Sanchez**  
Saskibaloia jokalaria • 18

**Ekain Elorza berriztarra Morgan proiektu arrakastatsueguz egongo da zapatuan Elorrioren**

**Elorrio** | Musikaire jaillaldiaren baitan eskainiko du kontzertua boskote madrildarrak, Lariz jauregian. • 12



Otxandio eta  
Zornotzako  
Jaiak  
2018

 **Smurfit Kappa**  
Central Forestal

**50 urte**  
EUSKADIKO  
PINUDIAK  
ZAITZEN

 **Smurfit Kappa**  
Nervión





**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**


Trenak libre utzitako eremurako plana onartzen bada, Durango ez da orain arteko berbera izango urbanistikoki. Alde batetik, hamarkada luzeetan herria erdibitzen zuen hesi sinbolikoa desagertuko delako, eta, bestetik, 60.000 metro karratu berrerrabiltzeak aukera asko emango dizkiolako herriari. Kasu horretan, eragin berezia edukiko dute bertan eraikitzeak aurreikusi diren 550 etxeek. Antonio Aiz garraio sailburuordearen berbetan, "historiako eraldaketarik handiena izango du Durangok" plana amaitutakoan. Obrek 32 hilabete iraungo lukete. Joan zen barikuan egin zuten planaren aurkezpena Aizek, Aitziber Irigoras alkateak eta Aitor Garitano ETSko zuzendariak.

**Proiektuak 10,9 milioi euroko aurrekontua du eta 32 hilabetean gauzatzeko asmoa dute**

Faseka egingo duten proiektuak 10,9 milioi euroko aurrekontua du eta 32 hilabetean gauzatzeko asmoa dute. Hala ere, *Durango Operazioa* proiektua, guztira, 260 milioi euro inguruko inbertsioa izan da Eusko Jaurlaritzarentzat, trenaren lurperatzea hasi zenetik. Inbertsio horren tamaina nabarmendu gura izan zuen Aizek: "Jaurlaritzak 1.200 milioi euro inguru inbertitu ditu trenbideetan azken 10 urteetan, eta horietatik 260 Durangon izan dira. Hori kontraprestaziorik barik, higeriezen aprobetxamendua salbu".

## Durangok urbanistikoki izango duen "historiako eraldaketarik handiena" garatzeko bidean

Eusko Jaurlaritzak 60.000 metro karratu dituen eremurako plana aurkeztu zuen joan zen barikuan udaletxean



Garitano, Irigoras eta Aiz joan zen barikuan udaletxean eginiko ekitaldian.

Beraz, zuzenean ez bada ere, inbertsioaren kostua estaltzeko dirua batzen saiatuko dira etxeen proiektuagaz.

Bestalde, Aizek azpimarratu zuen "lurren %73 herri bizitzarako" izango direla.



ANTONIO AIZ

**"Lurren %73 herri bizitzarako izango dira, berdeguneak, jolastokiak..."**

Irigorasek Eusko Jaurlaritzaren "inplikazioa" eskertu zuen. Orain,

udal teknikariek aztertuko dute, gero alderdi politikoez, eta, ostean, jendaurrean ipiniko dute erakusgai. Herritarren ekarpena jaso eta gero, behin betiko onartuko dute plana. Irigorasen berbetan, ez da derrigorrezkoa izango osoko bilkuratik pasatzea. Bere arabera, obrak

amaitutakoan eremua "birika berde" bat izango da herriarentzat.

### Estazioa bota zuten

Gaur arte, lan hauek burutu dituzte *Durango Operazioan*: tren lurperatzea, 27 pasagune kentzea, geltoki berria egitea, kotxetegiak Lebariora eramatea, eta, azkenik, estazio zaharra botatzea. Kasu honetan ere, eraisketa etetearen aldeko sinadurak batu zituen herritar talde batek, orain planaren inguruko galdeketa eskatzen dabilzanek lez.

### Oposizioak

Udalan eztabaidagai izan da sarri *Durango Operazioa*. EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak errekurtsoa ipini zioten ETS eta udalaren arteko hitzarmenari urtarrean, ETSk udalagaz duen 4,2 euroko zorra "koardatzeko modu bat" delakoan.

ANBOTOK asteon Twitterren iritzia galdetuzan ere erantzun dute. "Trenaren lurperatzea ordaintzeko funtsezkoa den eskubidea erabiltzen da: etxebizitza. Non eta 1.500 etxebizitza hutsik duen herrian, 550 etxebizitza berri", dio Dani Maeztuk (EH Bildu). Galdeketa eskaria babestu dute biek. "Durangok behar duena durangarroi galdetu behar zaigu. Erabakiak ezin dira bulego itxietan hartu", uste du Julian Riosek (Herriaren Eskubidea).

## Herri galdeketa alde sinatzeko deialdia berretsi du Erabaki taldeak, planaren aurkezpenari erantzunez

"Orain, inoiz baino gehiago herritarrok erabaki gura dugu", adierazi dute oharrean

**DURANGO • M.O.**

Hilabete pasatxo baino ez da Erabaki plataforma jaio zenetik Durangon. Maiatzaren 23an egin zuten lehenengo batzar publikoa Maristak ikastetxeko aretoan, jende ugari batu zelarik, eta trenbiderako planaren inguruan herri galdeketa bat bultzatzeko asmoa agertu zuten. Horretarako, sinadura biltzeko bat ipini zuten martxan, gero proposamena udalan aurkeztu ahal izateko. Bada, Eusko Jaurlaritzaren planaren aurkezpenari erantzunez, galdeketa alde sinatzeko deialdia berretsi zuen taldeak. "Orain, inoiz baino gehiago durangarrok erabaki gura dugu",

adierazi zuten egun berean kalera-tutako oharrean. 2.300 sinaduratik gora beharko dituztela aurreikusi dute, eroldaren %10 bueltan, era ofizialean erregistratu eta mozio lez eztabaidatzeko.

**Orain arte ez dutela informaziorik eduki kritikatu dute Erabakiko kideek**

Orain arte ez dutela informaziorik eduki kritikatu dute Erabakiko kideek. "ETSri eta udalari informa-

zioa eskatzeko eta hitz egiteko eskakizunak egin genizkien eta ez dugu erantzunik jaso", adierazi dute.

### Zalantzak


Behin datu zehatzak jakinda, zalantzak agertu dituzte. Adibidez, etxeen proiektuaz. "Porlana eta espekulazioa, goitik datorren dekretu baten bidez", diote. Etxe berrien eraginez sortuko den trafikoak ere kezkatzen ditu. "Nora joango da trafiko hori guztia? Eta trenbide zaharra?", galdetu dute mezuan.

Hurrengo asteetan ere sinadurak batzeko mahaiak ipintzen jarraituko dute Erabakikoek.



Erabaki plataformaren aurkezpenaren jende ugari parte hartu zuen.





## 1 550 etxe

Antonio Aiz sailburuordeak baieztatu du 550 etxebizitza inguru eraikitzea aurreikusita dagoela, 2006ko planean jasotzen zenari jarraituta. Sei bloke egongo dira guztira. Merkatu libreko etxeen bost dorre eta babeseko etxeen bloke bat. Dorreek 18 pisuko altuera edukiko dute gehienez, eta bakoiza 1.900 metroko azalera eraikiko da. Babesekoen blokea 7 pisukoa izango da gehienez, 4.354 metro karratuko azalera hartuko duenak.

## 2 Anfi teatroa

Planak izaera ludikorako zenbait gune aurreikusten ditu espazio horretarako, eta horien artean anfiteatro bat dago, ekitaldi eta kultur ikuskizunetarako baliagarri izan ahal dena. Etxeen ondoan eraikiko dute, mendebaldean.

Gizarte harremanei begira, ekintza dinamiko eta bio-osasungarrien guneak proiektatu dituzte, besteak beste. Gainera, oinezkoek eta bidegorriek protagonismoa edukitzea da sustatzaileen helburua.

## 3 Jolas guneak

Anfiteatrotik gertu, eremuaren hego-mendebaldean, kirolak praktikatzeko kantxak ipiniko dituzte. Horrez gainera, tren geltoki berriaren hegoaldeko zonaldean umeentzako jolas-tokiak egongo dira.

Bestalde, 2006ko ideiaz alderatuta, planak ez ditu gune bi ekarriko. Bata, Euskotreneko egoitza nagusia, krisia heldu zenean baztertu zena. Bestea, erabilera erlijiosorako eremua, udalak birritan baztertu duena EH Bilduren eskariz.

## 4 Geltoki Plaza

Geltoki berriaren sarbide nagusitik gertu –oraindik zabaltzeko dagoena–, Geltoki Plaza izendatu dutena egongo da. Espazio zabal horretan, trenaren erabiltzaileen sarrera eta irteera gune izateaz aparte, autobus eta taxientzako leku bat atonduko dute. Eusko Jaurlearitzaren asmoa eremuari intermodal izaera ematea da, garraio zerbitzu guztiak iristerrazak izateko, eta batetik besterako loturak egin ahal izatea indartzeko.

## 5 Biribil gunea

Estazio zaharra zegoen lekutik gertu, Sasikoarantz, biribilgune bat eraikitzen ari dira, etxebizitza berrietako bizilagunen trafikoari irteera bat emateko. Biribilguneak Sasikoa kalea Askatasun etorbideagaz lotuko du errepide zati berri bati esker, eta Ermodorantz ere bideratuko du trafikoa.

Trafikoaren bidez kaleak lotuko diren bezala, bidegorriekin ere gauza bera egin gura dute eremuan, trenbideak zekarren hesi sinbolikoa gaindituta.

## 6 Tren bidea

Biribilguneetik San Faustoraino libre geratuko den trenbide zaharreko trazadura udalaren jabetzakoa da, instituzio biek hitzarmen bidez hala erabaki zutelako. Beraz, udalari dagokio lur hori urbanizatzea. Oraindik ez dago informazio ofizialik, Erabaki plataformak errepideari segida emango zaiola salatu duen arren. Udalak prozesu parte-hartzaile bat egin zuen herriko gazteekin, eta zeharbide berde bat sortzea proposatu zuten.

## Iritziak

anboto.org webgunean trenbide zaharreko proiektuaren inguruan egindako inkestan 282 boto jaso dira. Egokia iruditzen al zaizu Durangoko trenbide zaharrerako plan berria? zen galdera. Botoa eman dutenen artean, plana desagokoa iruditzen zaie %91ri (256). Era berean, 26 aldeko boto jaso ditu proiektuak, (%9).

Bestalde, #durangoperazioa traolagaz herritarrek trenbideko planaren inguruan duten iritzia jaso gura izan du ANBOTOK. Gogoeta horietako batzuk dira hauek.



Tren geltoki berriaren irudia. Lehior Elorriaga



IGOR ELORTZA

Proiektu erabakiorra da: betiko baldintzatuko gaitu. Ez al dugu nahikoa etxe eta kotxe? Gehiago hazi behar dugu? Ala gaurko tamainan hobeto bizi? Zorretan gaude ETSrekin? Informazioa, eztabaida eta erabakitze ahalmena.

Herri bateko erabaki estrategikoak herritarrok hartu beharra dauzkagu. Informazio egokia eskaini eta eman diezagutela egin beharrekoa erabakitze aukera durangarroi.



ANDONI URZELAI



NESKUTZ RODRIGUEZ

Noren interesak defendatzen dira zementuzko proiektu honetan? Durangarrok gure etorkizuna erabaki nahi dugu baina udal gobernuak ez digu galdetzen

Galdetzea ez da demokrazia bazarrik, galdetzea herriaren jakintza jasotzea ere bada, umiltasun ariketa bat, inteligentzia erakustaldia. Beti galdetu behar da. #Durangoperazioa -n ere bai



JASONE AGIRRE



MARIA OÑATE

Gustatu edo ez gustatu, sinatu ezazu galde diezazuten. Harritu egiten naute erakutsi dizkiguten irudien dimentsioek. Garaia da zein Durango gura dugun erabaki dezagun. Gainera, jendeak jakin behar du honek zer suposauko duen.

Herria auzo elkarteak duen ardura da etxe bizitza horiek guztiak egin ondoren trafiko nabarmen handituko dela gure elkarteak ordezkatzen duen guneetan, eta gure kaleak arriskutsuagoak egingo ditu, seguru.



JAIME INTXAUSTI



## Gizarte larrialdietan 450.000 euro erabili dituzte jada aurten

**DURANGALDEA** • MARKEL ONAINDIA

Amankomunazgoak aurten gizarte larrialdi kasuetan diru-laguntzak emateko aurreikusitako kopurua agortu da jadanik, urtea hasi zenetik sei hilabete bakarrik pasatu direnean. 450.000 euro erabili dituzte egoera ekonomiko zailean dauden herritarrei laguntzeko. Hori dela-eta, Amankomunazgoak beste 120.000 euro erabiltzea onartu du, urtea amaitu bitarteko beharriari aurre egiteko. Berez Eusko Jaurlaritzari dago-kio partida hauek finantzatzea, baina Aitor Lopezek dio lortu ezean ere diru hori emango dutela, bertako baliabide ekonomikoak aprobetxatuta.

Iaz ere 600.000 euro inguru inbertitu zituzten gai honetan. Lopezek dio urtero igotzen den partida bat dela gizarte larrialdietarako laguntzena.

## Antzerkiari lotutako ekintzak egin dituzte, asteon, udalekuan dabilzan gaztetxoek

**MAÑARIA** • J.D.

Mañariko Andra Mari gurasoen taldeak antolatutako udalekuetan, 12 urtera arteko 40 bat gaztetxo dabilza aurten. Joan zen astean hasitako udalekuek uztailaren 20ra arte iraungo

### Herrian egindako ekintzez gainera egunpasa bat baino gehiago izango dituzte udalekuetan

dute. Aste honetan, esaterako, antzerkiari lotutako hamaika ekimen izan dituzte. Irteerak ere egin dituzte. Garaioko parkera eta inguruko urtegiara joan dira, bainatzeko zein interpretazio zentroa bisitatzeko.

# Frankismotik hona giza eskubideen urraketak jasan dituzten herritarren zerrenda egingo dute

Ikerketa amaitzean, gerra zibileko eta frankismoko biktimekin batera Otxandioko sufrimenduaren mapa osatuko dute



Euskal Memoriaren Fundazioak gauzatuko duen ikerketaren berri eman zuten azken udalbatzarrean.

**OTXANDIO** • JOSEBA DERTEANO

Giza eskubideen urraketak jasan dituzten herritarrei errekonozimendua aitortzeko pausoak ematen jarraitzen du Otxandioko Udalak. Gerra zibileko eta frankismoko biktimak identifikatzen egindako lanari, beste lan ildo bat gehitu diote: frankismotik hona, azken 50 bat urteetan, biktima izan direnen zerrenda egitea. Denekin Otxandioko sufrimenduaren mapa osatu gura dute.

Bere sasoiari, memoria berreskuratzeko eta biktimei errekonozimendua eskaintzeko bidean lan egiteko konpromisoa hartu zuen udalak, eta marko horretan sartzen dira lan ildo denak. Frankismotik honako biktimena da azkenena. "Seguru gaude beste biktima

asko daudena. Modu batekoak edo bestekoak, eta arrazoi askogatik. Erakundeen aldetik sufrimenduen aitortza jaso ez duten herritarrek dira. Inoiz ez da ezer ofizialik egin zauri horiek ixteko, eta guk bide horretan pausoak ematen jarraitzeko ardura sentitzen dugu",

### "Zauriak ixteko bidean pausoak ematen jarraitzeko ardura sentitzen dugu"

adierazi du Urtzi Armendariz alkatetza. Ikerketa horregaz, ahalik eta pertsona eta kasu gehien identifikatzea lortu gura dute. Nortzuk diren eta zer gertatu zitzaizen. "Eurek

bizitakoa kontatzeko aukera eman gura diegu", dio Armendarizek.

Euskal Memoriaren Fundazioak egingo du ikerketa, arlo horretan esperientzia zabala duelako eta Hernanin, Etxarrin eta beste herri batzuetan ere horrelako lanak burutu dituelako. Azken udalbatzarrean eman zuten egitasmoaren berri. Euskal Memoriak 4.500 euroko aurrekontua izango du.

Batetik, dokumentu ofizialak arakatuko dituzte: salaketak eta antzerako dokumentuak. Baina beste urraketa batzuek ezkutuan jarraitu dezakete, ez daudelako inon jasota. Horregatik, herritarren testigantza jasotzeko, udal txeko bulego bat ere martxan jarriko dute epealdi batean. Prozesu hau guztia irailean jarriko da martxan,

eta sei eta bederatzita hilabete artean iraungo du. Gero, zerrenda osatuta dagoenean, udalak erabaki behar du biktima horien guztien errekonozimendua zelan gizarteratu.

Bitartean, franskimoko biktimen testigantza jasotzeko lanak aurrera darrai. Udala Argentinako

### Euskal Memoriaren Fundazioak egingo du ikerketa lana, gaian esperientzia duelako

kereilara batzeko txostena prestatzen ari da eta jasotako testigantza txosten horretako osagai bat izango dira.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2018ko uztailaren 6a  
16. urtea - 728. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
11.500 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



## Durangorako Auzotaxi zerbitzu proposatu du Herriaren Eskubideak udal batzordean

**DURANGO** • M.O.

Auzotaxi zerbitzu bat proposatu zuen Herriaren Eskubideak martitzeneko udal batzordean. Ez da barne garraioari buruz ekarpenak egin dituen lehen aldia. 2016an, esaterako, mozio bi plazaratu zituen; bat barne garraiorako alternatiba lez, eta bestea nagusientzako eta mugikortasun murriztua dutentzako proposamen moduan. Ideia horiek herritarren iritzia entzunda bideratu zituen Herriaren Eskubideak.

**"Gaia batzordean landu dugu eta bere garaian onartutako akordioak betetzea espero dugu"**

"Insistitu eta urte bi pasatu ostean, gaia batzordean landu dugu eta bere garaian onartutako akordioak betetzea espero dugu", esan dute prentsa oharrean.



Plataformako kideak sinadurak batzen.

## A-8 autobideko bidesarien aurka protestatzeko, auto-ilara egingo dute

**DURANGO** • M.O.

A-8 Peajerik Ez! plataformak deituta, autobide horretako bidesarien aurkako protesta egingo dute bihar, karabana edo auto-ilara eginda. 11:30ean Tabirako igerilekuetako aparkalekuan elkartu, eta Bilboraino joango dira. 13:00etan kontzentrazioa egingo dute San Mames estadioaren aurrealdean.

Plataformak lehendik ere eginak ditu antzerako protestak. Sinadurak batzen dabilta, eta euren aldarriagaz Europara jotzea ere aztertzen dabilta. Sanchezen gobernuak bidesariak kenduko dituela iragarri ostean, A-8agaz gauza bera egiteko eskatu diete aldundiei.

# "Bazkide guztiei esan diegu zentro zibikoa egingo zela, udalak hala ulertarazi zigulako"

Aramotz auzorako zentro zibikoaren eskaria aspaldikoa da, eta Herria elkarteak udalagaz tratuan ibili den arren, gobernuak esan du momentuz ez dela egingo; iragarpen hori ez zuten espero Herriakoek, Gorroñok eta Intxaustik diotenez



Gorroño eta Intxausti Herria auzo elkarteko batzordekideak, euren tabernaren parean.

**DURANGO** • MARKEL ONAINDIA

Aramotzen parke berria inauguratzeko ekitaldian, gobernu taldeak esan zuen momentuz ez dela zentro zibikorik egingo auzoan, eta

oraingo inbertsioak auzoko zati zaharrena errehabilitatzeko Aramotz Berritu proiektuan gauzatu direla. Irargarpen horren harira, ANBOTOrak jo dute Herria elkarte-koek. "Zentro zibikoa hiltegi-ko lurretan beharrez, alboko Pagasarri kaleko blokeen behealdean egitea proposatu ziguten orain lau hileko batzarrean. Elkartearen berba egin eta baietza eman genuen. Baina ez genuen uste albo batera utziko zutenik", dio Jaime Intxaustik.

**Intxausti: "Etxe blokeen behealdean egitea proposatu ziguten orain lau hileko batzarrean"**

Herriakoek salatu dute geroztik ez dutela informaziorik eduki, eta jolas-parkerako euren eskariak ez direla bete. Orain aste bi pankartak

**Gorroño: "Orain zer esan behar diegu jende horri? Geu gara minduta gaudenak"**

ipini, eta gobernuak kideak minduta agertu ziren. Baina Eugenio

Gorroñok bestelako iritzia du. "Lau urtean, bazkide guztiei esan diegu zentroa egingo zela, udalak hala ulertarazi zigulako. Orain zer esan behar diegu jende horri? Geu gara minduta gaudenak", esan du.

Zentro zibikoaren alde lanean jarraituko dute. "Herriako bazkideak alderdi guztietakoak dira, eta, horregatik, udalagaz lan egin behar dugu. Baina ulertu behar du auzo elkarte bat errebindikatiboa dela", esan du Gorroñok.

## Indarkeria matxistaren aurkako Herritarren Itunak 300 sinadura gehiago lortu ditu Sapubike taldeari esker

Pilar Rios berdintasun zinegotziak itunaren indarra nabarmendu, eta gizonezko partaideen konpromisoa eskertu du

**DURANGO** • M.O.

Domekan, Sapubike txirrindulari taldeak antolatutako lasterketa egin zen Tabira auzoko jaietan, eta ekimena biolentzia sexistaren

**Riosek Sapubiken ekarpena eskertu du, eta batutako gizonen konpromisoa ere bai**

aurkako sentsibilizazioa egiteko aprobetxatu zuten. 300 sinaduratik gora lortu zituzten udalak sustatzen duen indarkeria matxistaren kontrako Herritarren Itunerako. Aurretik jasotako ehunka sinadurari gehitu behar zaizkie.

Berdintasun Saileko zinegotzi Pilar Riosek Sapubiken ekarpena eskertu du, eta lasterketan batutako gizonezkoen konpromisoa ere bai. 325 lehiakideen artean 6 emakume baino ez ziren egon, udalaren arabera.

**'Erastop', Iruñean**

Bestalde, asteon jakin da eraso sexistak prebenitzeko Durangon iaz sortutako Erastop aplikazioa sanferminetan eta Bilboko Aste Nagusian ere erabiliko dutela. Jaiez aparte, urte osoan erabili daiteke.

Zapatu honetan aplikazioari buruz jardungo dute Durangon antolatutako autodefentsa feministako tailerrean. Bertan, Idoia Agorria arduradunak udan erabili ahal izateko aholkuak emango ditu.



Pilar Rios, Sapubike taldeko zenbait kidegaz batera.



# Muntsarazko sarbideetarako hiru semaforoaren zikloa "ahalik eta arinen" aldatu gura du udalak

Ekainean eginiko ekimen biak (deialdia osoko bilkurara eramateko eta elkarretaratzea semaforoetan) arrakastatsutzat jo ostean, auzotarrek irailaren 4an egingo dute hurrengo bilera, Muntsarazko jaietan ekimenik egin ala ez erabakitzeko

**ABADIÑO • A.M.**

Gutxietsita sentitzen direla salatu dute Muntsarazko bizilagunek hainbat bider. Apirilaren 9az geroztik N-636 Durango-Elorrio errepideko Abadiñoeko zatiko semaforoak erregulatzeko eskumena du Abadiñoeko Udalak, eta hiru semaforoaren zikloa aldatu gura du bizilagunen sartu-irtenak errazteko; semaforo bi (Durangotik Muntsarazterako sarrera kontrolatzen

udala eta Foru Aldundia. Jose Luis Navarro alkatearen berbetan, hala ere, 800 metro gehiago kudeatzea eskaini dio Foru Aldundiak udalari, 100.000 euro gehiagoren truke (aurrekordioa 1.200.000 eurokoa zen).

**Auto istripua astelehenean**

Hainbat mobilizazio egin dituzte Muntsarazko auzotarrek, tartean, kontzentrazio jendetsua. Sarbideen auzia ez konpontzeak arriskua dakarrela salatu dute, besteak beste.

Astelehenean, adibidez, gizonezko bat Galdakaoko ospitalera eraman behar izan zuten auto istripu batean zauritu eta gero. Auto batek eta furgoneta batek istripua eduki zuten Muntsarazten.



Ekaina amaieran egindako mobilizazio jendetsua.

**Irailaren 4rako beste auzo batzar baterako deialdia egin du auzotar talde batek**

duena eta Durangorako irteera kontrolatzen duena) hori egongo dira, eta Elorriorako norabidea kontrolatzen duena "ahalik eta denbora" gutxien egongo da gorri. Bitartean, errepidea bere osotasunean kudeatzeko negoziatzen ari dira



San Kristobal

## Astelehenetik aurrera San Kristobal jaiak ospatuko dira Mendiolan

**ABADIÑO • A.M.**

San Kristobal jaiak astelehenean hasiko dira, Donien Atxa altxatuta. Jarraian, Fredi Paiak, Onintza Enbeitak eta Aitor Bizkarrak bertso saioa eskainiko dute. Barikuan kontzertuak izango dira protagonista; denetarikoinuak ekarriko dituzte Crim, Audience eta Txapito Guzman eta Ibarako Langostiniek taldeek. Zapatuan egun osoko plana prestatu dute antolatzaileek. 13:00etan auto klasikoaren erakusketa egongo da, eta, ostean, herri bazkaria egingo dute. Uztailearen 15ean Abadiñoeko Artzain Txakur Txapelketa egongo da; errifan zozketa klasiko ere egingo dute.

# Prozesu parte-hartzaileko 30.000 euroekin zer egin erabaki dute

60 urtetik gorako zaldibartarrek parte hartu dute aurrekontuen prozesu parte-hartzailean



30 bat lagunek parte hartu dute prozesuan.

**ZALDIBAR • A.M.**

60 urtetik gorako zaldibartarrek 30.000 euro zertan inbertitu erabakitzeko parte-hartze prozesua egin du udalak. Jasotako 36 proposamenen artean, hogeita zaldibarko Udalaren eskuduntza. Aurrekontuetako zati horri esker, proposamen ia guztiak burutu ahalko dira. Besteak beste, panel informatibo bat ezarriko da, jubilatuen etxetik

**Panel informatibo bat, zebra bide bat eta hainbat ikastaro egiteko eskaerak beteko ditu udalak**

**Azpitarre alkatea pozik agertu da prozesuak herritarren artean eduki duen harreragaz**

Olazarrera bitarteko bidean zebra bidea margotuko da, eta ikastaro gehiago eskainiko dira. Udalak hainbat bider antolatu ditu aurrekontu parte-hartzaileen egitasmoa. Azpitarte alkatea pozik agertu da egitasmoak eduki duen harreragaz. "Herriari galdetzea beti da garrantzitsua", esan du. Prozesuan 30 bat lagunek parte hartu dute.



Giro itzela, Zaldibarren

## Eguenean Donien Atxa jaso ostean, jai giroan murgildu da Zaldibar

**ZALDIBAR • A.M.**

Donien Atxa jasota, atzo hasi ziren Zaldibarko jaiak. Gaur herri kirol erakustaldiak egongo dira arratsaldean, eta, gauean, kontzertuak. Storm eta Bultz eskualdeko taldeek zuzeneko eskainiko dute txosnagunean. Zapatuan Gazte Eguna ospatuko dute, lehenbizikoz, txosnagunean. 14:30ean bazkaria egingo dute txosnagunean, eta, ostean, ohiko olinpiadak egingo dituzte. Arratsaldean Sakatu taldeak girotuko ditu kaleak, eta gauean Urrats taldeak erromeria eskainiko du. Hainbat urtez jaietan itxita egon eta gero, barikuan eta zapatuan zabalik egongo da gaztetxea, 02:00etatik aurrera.



# Udal tramiteak zentralizatuko dituen arreta zerbitzua irailean zabalduko dute

2019tik aurrera Zelaia Zentroan beste bulego bat zabalduko dute, langile bategaz



Andoni Agirrebeitia alkatea eta zerbitzu berria antolatzen aritu diren teknikariak, bulego berrian.

## ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Irailaren 3an zabalduko dute Herriarren Arretarako Zerbitzu (HAZ) berria Zornotzako udaletxean, sarreraren ondoan. Udaleko tramite denak hantxe egiteko aukera egongo da. Udaleko webgunean (izapideak atalean) tramite guztiei buruzko informazioa jaso daiteke. Bete beharreko imprimakiak ere jarri dituzte. Ondoren, HAZ-en aukera bi egongo dira. Kutzazain

**Udaleko webgunean eskuragarri daude izapideen zerrenda eta beharrezko imprimakiak**

**Kutzazain elektronikoak errolda agiria eta ordainagiria kudeatzeko aukera eskainiko du**

elektroniko batek errolda agiria egiteko eta ordainagiriak ordaintzeko aukera eskainiko du. Aurrez aurreko arreta eskainiko duten lau pertsona ere egongo dira. 07:30 eta 15:30 artean egongo da zabalik. 2019ko urtarriletik aurrera Zelaia Zentroan beste bulego bat izango du HAZ-ek, arratsaldetan, langile eta kutxazain elektroniko batez.



## Herrian bereizgarriak diren osagaiak batuz osatu dute udaleko Hiri Marka berria

### ZORNOTZA • J.D.

Udalak Hiri Marka berria estreinatuko du. Marka berria Amorebieta-Etxanoren hasierako hizkiek osatzen dute, eta bere siluetak herriaren ondare historikoa osatzen duten eraikin esanguratsuenak, herria zeharkatzen duen Ibaizabal ibaia, inguratzen duten mendiak eta herriaren alde biak elkartzeko dituzten zubien kurbak erakusten ditu. Urdin kolorea izango du, herria ondoen definitzen duen kolorea dela uste dutelako. Apurka aplikatuz joango da, guztiz barneratu arte. Udalaren armarrak, bere aldetik, modu puntualean eutsiko dio erabile- ra instituzionalari.

Lanerako gertu!

2018-2019

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Oñati gestio heziketa

**MGEP**

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

75

75 URTEZ JAKINTZA SUSTATUZ  
ETORKIZUNA ERAIKITZEN

## Matrikula

Uztailaren 12-13-16-17-18

## Eskaintza akademikoa

### OÑATI GESTIO HEZIKETA

### MGEP

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa
- Nazioarteko Merkataritza

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrial
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrial

[www.mondragon.edu/ogh](http://www.mondragon.edu/ogh)  
[rigarza@mondragon.edu](mailto:rigarza@mondragon.edu)  
943 71 80 09

[www.mondragon.edu/gmhz](http://www.mondragon.edu/gmhz)  
[gmhz.mgep@mondragon.edu](mailto:gmhz.mgep@mondragon.edu)  
943 71 21 91 • 664 277 592





# San Inazio egunean ospatzen zuten Kanpanzar Eguna uztaileko bigarren zapatuan egingo dute

Elorrioko, Arrasateko eta Angiozarko udalen erabakiz, aurten uztailearen 14an ospatuko dute Kanpanzar Eguna



Ezkerretik hasita, Juanra Mendieta, Maria Ubarretxena, Jose Angel Mikeo, Maitane Lopez eta Idoia Buruaga.

## ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Orain arte, Elorrio, Arrasate eta Angiozarko herritarrek uztailearen 31n batzen ziren Kanpanzarren, bertako eguna ospatzeko. Hala ere, azken urteetan data horretan "jende gutxi" batzen zela ikusita, Elorrioko, Arrasateko eta Angiozarko udalek jaieguna uztaileko bigarren zapatua aurreratzea erabaki dute. Idoia Buruaga Elorrioko alkateak jakitera eman duenez, bazekiten "data txarrak" zirela, eta horregatik erabaki dute jaia aurreratzea.

## Herritarrei batzeko deia

"Urtean zehar ez dugu hiru herrien artean hartu-eman handirik izaten, eta egun honek horretarako aukera paregabea ematen du",

**Elorrio, Arrasate eta Angiozarko herritarrek San Inazio egunean batu izan dira Kanpanzarren**

**Hiru herrietako alkateek Kanpanzarrera joateko deia egin diete herritar guztiei uztailearen 14rako**

adierazi du Buruagak. Horrez gain, Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak eta Jose Angel Mikeo Angiozarko alkateak Kanpanzar Egunerako joateko deia egin diete herritar guztiei. "Merezi duen eguna da, hi-

ru herriok bat egiten baitugu", esan du Buruagak.

Bestalde, Kanpanzar Eguna jai giroan pasatzeko, egitarau zabala antolatu dutela jakitera eman dute.

**Buruagaren hitzetan, egun "polita" izaten da, hiru herriek bat egiten baitute**



**Berrio-Otxoa Eguna, herriko patriaren eguna, ospatu zuten eguaztenean Elorrion**

## ELORRIO • M.Z.

Eguaztenean Berrio-Otxoa Eguna ospatu zuten Elorrion, herriko patriaren eguna. Santu eta Bizkaiko zaindarikidearen omeneko ospakizunak 12:00etan hasi zituzten, herriko basilikan, meza nagusiagaz.

Aurretik, Jose Antonio Ardanza lehendakari ohiagaz eta Ana Otadui Batzar Nagusietako presidentegaz batera, Idoia Buruaga alkateak eta zenbait udal ordezkariak udaletxetik basilikarainoko bidea egin zuten.

**Argiñetako teiltua konpontzen dabilta, ermita egoera onean mantentzeko asmoz**

## ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalaren eta Argiñetako Kofradiaren hitzarmen bati esker, Elorrioko Argiñeta auzoko ermitako teiltua konpontzen dabilta ekainaren amaieraz geroztik.

Udalak jakitera eman duenez, teiltua egoera "kaskarrean" zegoen eta lan hauek teiltua konpondu eta ermita egoera onean mantentzeko balioko dute. 50.000 euro bideratuko dituzte lanak egiteko.

## Indarrean daude TAOn egindako aldaketak, egoiliarrentzako 35 aparkaleku gehituta

Txandakako aparkalekua sustatzen duen gune urdina izaten jarraituko du Askondo kaleak

## IURRETA • AITZIBER BASAURI

Aste honetan ipini dituzte indarrean Trafikoa Arautzeko Ordinantzan (TAO) Iurretako Udalak egindako aldaketak. Tellitun etxebizitzak eraikiko dituzte laster, eta horrek TAO berrantolatzea behartu du udala. Tellitun egoiliarrentzako 75 aparkaleku daude, eraikitzen hastean desagertu egingo direnak.

Indarrean ipinitako aldaketekin egoiliarrentzat —gune laranja— 35 aparkaleku gehiago daude,

**TAO berrantolatuta, probarako epea izango da uztaile. Abuztuan eten egingo da, irailera arte**

guztira 205, eta txandakako aparkalekuak edo gune urdina 40 lekura mugatuko da. Paduretán, Bideondón eta kultur etxearen inguruan batu dituzte aparkaleku libreak, 500 bat.

Bidebarrieta, Maspé eta Zubiaurre kaleak ia osorik egoiliarrentzako gune bihurtu dira, txandakako aparkaleku gutxi batzuk gorde dituzten arren. Ibarretxe kultur etxearen inguruan ere margotu dituzte egoiliarrentzako aparkaleku batzuk. Txandakako aparkalekua sustatzen duen gune urdina izaten jarraituko du Askondok. TAO berrantolatuta, probarako epea izango da uztaile. Abuztuan, eten egingo da TAO, irailera bitartean.



Bidebarrieta, Maspé eta Zubiaurre ia osorik egoiliarrentzako gune bihurtu dira.



# beherapenak

**SCHMIDT**  
Cocinas y Muebles de Hogar

Murueta auzoa, Eroski saltoki gunea 17 B  
Tel.: 946 526 195 · [info@schmidt-abadiano.com](mailto:info@schmidt-abadiano.com)  
[www.home-design.schmidt](http://www.home-design.schmidt)





Foseco enpresa

## Greba atzeratu dute Fosecon, neurrien berri jakin arte

**IZURTZA • J.D.**

Foseco Española S.A. enpresak Izurtzan eta Igorren dituen lantegietako langile asanbladak deituta, atzo greba mugagabea hasi behar zuten, baina aurreko egunean zuzendaritzagaz batu ostean atzeratzea erabaki zuten. Foseco Vesuvius talde multinazionalaren barruan dago. Hark Europako planten berregituraketa bat egingo du. Uztailearen 16an emango dute horren berri, eta ordura arte greba atzeratzea erabaki dute.

## Andikoako Andra Maria ermita inguruan zundaketak egingo dituzte

**BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Berrizko Andikoa auzoko Andra Maria ermita inguruan zundaketa bat egingo dute hile honetan. Orlan Isoird alkateak jakitera eman duenez, 10.000 euroko aurrekontua duen zundaketak Erdi Aroko kanposantua ze eremutan egon daitekeen jakiteko balio dezake. Bestalde, zundaketa horietan aztarnaren bat aurkituko balute, datorren urtera begira plangintza bat egingo luketela esan du alkateak.

## Asteon amaitu dituzte Garaiko hilerrian hobientzako leku gehiago egiteko lanak

**GARAI • M.O.**

Otsailean hasi zituzten garaiko hilerria eraberritzeko lanak, eta euriteen eraginez denbora batez atzeratu eta gero, asteon amaitu dituzte azkenean. Erraustak gordetzeko kolunbarioak ezartzea, hamazortzi hobi aurrefabrikatu ipintzea eta kaperako teilatua konpontzea izan dira lan nagusiak.

Udalak 66.500 euro inbertitu ditu proiektua aurrera eraman ahal izateko.

# Idi eta asto probak diruz laguntzen jarraitzea erabaki dute mallabitarrek

Sinadura bilketa bati erantzunez, Mallabiko Udalak herri galdeketa loteslea egin du



Herritar bat herri galdeketa botoa ematen, Kontzejuzarrean jarri zuten bozka gunean.

**MALLABIA • JOSEBA DERTEANO**

Herritar bik sinadurak batu zituzten udalak idi eta asto probetarako diru-laguntzak kendu zituzten eskatzeko, baita tankera horretako probek udal azpiegiturarik erabili ez zezaten ere. Baliozko 271 sinadura batu zituzten. Horren aurrean, udalak herri galdeketa loteslea egin zuen joan zen domekan.

204 mallabitarrek parte hartu zuten. 119 herritarrek diru-lagun-

**204 mallabitarrek parte hartu zuten eta 119k laguntzak mantentzearen alde bozkatu zuten**

**Abuztuko jaietan 12.000 euro emango ditu udalak idi probak antolatzen laguntzeko**

tzak mantentzearen eta azpiegiturak erabiltzen uztearen alde bozkatu zuten. 81 lagunek horren kontra bozkatu zuten, eta 4 boto zuriak izan ziren. Beraz, 38 botoko aldea egon zen aukera bien artean. Horrela, abuztuko jaietako idi probetarako 12.000 euro emango ditu udalak. Joan zen otsaileko asto probetarako 3.000 euro eman zituzten.

# Anbotope Agroasanbladako kideek bertako produktuak eskaintzen dituzte Atxondoko igerilekuko tabernan

Atxondoko eta Elorrioko hamabi bat lagunek Anbotope Agroasanblada sortu zuten iaz. Uda honetan, berriz, beste erronka bati aurre egingo diote, Atxondoko igerilekuko tabernara doazenei beraien produktuekin emango diete jaten

**ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Hasi da dagoeneko igerileku denboraldia, eta aurrean Anbotope Agroasanbladako kideak kudeatzen dabilta Atxondoko igerilekuko taberna. Bertako nekazaritzari eta abeltzaintzari bultzada bat emateko orain urtebete sortutako produktore eta kontsumitzaileen kolektibokoek euren produktuak erakutsi gura dituzte igerilekuko tabernaren bitartez, nahiz eta

kadura burujabetzaren alde pauso bat emanez", esan dute Agroasanbladako kideek.

Euren proiektua herritarrei ezagutzera emateaz gain, produktuek dastatu eta erosteko aukera

ere ematen diete. Horrez gain, inguruko nekazarien produktuak ere eskaintzen dituzte. "Produktu guztiei lekua egiten eta ahalik eta produkturik artisauenak eskaintzen saiatu gara", aitortu dute.

Gainera, bertan jateko edo eramateko bazkariak eta afariak eskaintzeaz gain, Anbotope Agroasanbladako kideek kontzertuak, ipuin kontalariak eta abar antolatu dituzte udarako.

## Bertan jateko edo eramateko bazkariak eta afariak eskaintzen dituzte igerilekuko tabernan

aitortu duten euren helburua ez zela, hasieran behintzat, hirugarren sektorean aritzea. "Gizarteari bertan hazi eta ekoiztutako produktuak eskaintzea da gure kolektiboaren helburu nagusia, eli-



Hamabi lagun dabilta igerilekuko taberna kudeatzen.





## Hareek denporak!

### Ezenarrotarrak plazarik plaza jaiak alaitzen

Balendin Lasuenek Zaldibarko argazki zaharrekin kaleratutako bildumako irudietako bat da hau. Argazkian Jose Agustin, Juan eta Tomas Ezenarro agertzen dira. Antza denez, mende batez (1850-1950) Zaldibarko txistulari eta danbolin-jole plaza izan zuten. Ehun urte horietan Ezenarrotarren lau belaunaldik alaitu zituzten Zaldibarko jaiak, baita herriko beste hainbat os-

pakizun ere. Alejo Ezenarro Egiguren izan zen txistua jotzen lehena. Haren seme Felixek ere aitaren ibilbideari jarraitu zion. Hirugarrena Felixen semea izan zen, Jose Agustin, Abadiñon jaio-takoa. Honek atabala ere jotzen zuen, aitagaz jotzen zuenean. Dinastiako laugarrena Zesareo izan zen. Tomas eta Carlos anaiek atabala jotzen zuten, Zesareo anaiaz. J.G.

## Sei hankako mahaia

Goiztidi  
Diaz Basterra  
EAJ



### Kirolez blai bizi!

Beti pentsatu izan dot kirolak bizipoza ematen dauela. Ingu-ratzen gaituen paraje haueta-tik zehar korrika egitea eguneroko buruhausteez sortzen deuskuen estresa kentzeko tresnarik baliagarriena bihurtu da zalantzarik gabe.

Pozgarria da halaber, kirol zaletasuna bizirik mantentzen dauen herri batean bizitzea. Asko dira herrian dauden kirol taldeak, saskibaloia, futbola, errugbia, judoa, gimnasia erritmikoa, padela, atletismoa eta abar. Honela, bata bestearen atzean datozkigu talde guztien lorpenak, maila gorenetera igotzeak, txapelketen irabaziak... Oraindik ere gogoan ditugu bai Kulturaren zein Durango Rugby Taldearen azken lorpenak. Zorionak talde bie!

Baina gaurkoan gutxiagotan gogoratzen dogun kirol talde bat gogora ekarri nahi dot, Tabira Igeriketa Taldea hain zuzen ere. Ez da ohikoa igeriketaren inguruko berriak entzutea, baina Durango harro egon daiteke talde honetako neska-mutilek egiten dabien lanagaz.

Beren entrenatzailearen agindupean, gogor ekiten deusie entrenamenduei egunero egunero. Honela, txapelketa asko eta domina zenbatu ezinak deukiez bere soinean. Egun batzuk barru, Espainiako sorosle txapelketan parte hartuko dabie, urtero egiten dabien bezala, eta ziur nago aurten ere dominak ekarriko dabiezela etxera bueltan. Hitz hauen bitartez indarra eta animo asko bidaltzen deusiet. Ondo ederto eukingo dot beraien berri sare sozialetan, ez baita ez ahuntzaren gauerdiko eztula neska-mutil hauek egiten dabien lana. Zorierik hoberena opa deusuet. Animo Tabira Igeriketa Taldea!

## Durangaldea asteen

### Unai Agorriaren lanak iragarriko ditu aurtengo Iurretako San Migel jaiak

**Iurreta** | Unai Agorriaren kartelak batu ditu iurretarren botorik gehienak. Beraz, berak sortutako lanak iragarriko ditu herriko jaiak. Aurten bigarrenaz antolatu den umeen kartel lehiaketa, berriz, Xabat Agirrek irabazi du. Iaz ere Agorriak eta Agirrek egindako kartelak irabazi zuten. Nagusien kategorian lau lan aurkeztu zituzten, baina bat kanpoan geratu zen oinarriak betetzen ez zituelako. Gaztetxoek lehiaketara 11 lan aurkeztu zituzten.

### Zapatuan ireki zuten Autzaganeko bide zaharrea egindako bidegorria

**Zornotza** | Urdinbideko tunelak zabaldu eta hilabete bi geroago amaituta daude Autzaganeko bide zaharrea egindako bidegorriak. Bizkaiko Foru Aldundiak 725.000 euro inbertitu ditu. 1.600 bat metro dituen bide berriak Autzaganeko gainaren alde bietan dauden oinezkoentzako tarteei jarraipena ematen die.

### Bittor Kapanagaren omenez, bisita gidatua egingo dute uztailearen 14an

**Otxandio** | Bittor Kapanaga euskaltzale, ikertzaile eta idazle otxandiarraren omenez, bisita gidatua egingo dute uztailearen 14an. Kapanagazaleen taldeak eta Otxandioko Udalak antolatu dute bisita gidatua, eta udaletxe aurrean hasiko da, 11:00etan. Ordu biko iraupena izango du. Bisita gidatuan parte hartzeko, izena eman beharko da 663 901 248 zenbakira deituta edo [mikoletaelkarta@gmail.com](mailto:mikoletaelkarta@gmail.com) helbidera idatzita.



### Hiru irakasle maputxe euskara ikasten ari dira Zornotzako Barnetegian

**Zornotza** | Paula Huenumilla, Catalina Huenulef eta Álvaro Mariano maputxeak euskara ikasten dabilta Zornotzako Barnetegian. Mapuzugun hizkuntza berreskuratzea helburu duen Mapuzugulezuaiñ elkarteko kideak dira hirurak. Garabideguz elkarlanean, maputxeen hizkuntza hainbat arlotan indartzeko estrategiak martxan jartzen ari dira. Mapuzugun hizkuntza irakasten duten arren, oraingoan ikasle hasiberriaren paperean jarri dira hirurak. Euskara irakasteko erabiltzen diren metodo eta material didaktikoak ezagutzeaz batera, ikasleekin empatia izatea dute helburu.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**  
Bixente Kapanaga 9. - IURRETA · Izen-abizenak · telefonoa · helbidea · Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



## LANBIDE HEZIKETA

### ERDI MAILA

- Beroa sortzeko instalazioak (iturgintza, eguzki instalazioak, gasa)
- Mantentze-lan elektromekanikoa

### GOI MAILA

- Administrazioa eta finantzak
- Automatizazioa eta robotika industriala
- Mekatronika industriala
- Fabrikazio mekanikoko produktzioaren programazioa
- Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea
- Web Aplikazioen Garapena
- Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa (2. maila)



**MATRIKULA:**  
Uztailearen 12tik 18ra

**lea artibai**  
i k a s t e t x e a

**HETEL**







**Ekain Elorza Sarasketa**

Bateria jolea  
**Berriz | 1983**

## “Hamasei urteotan lan asko egin dut, eta ikusi dut heldu gura nuen horretara hurbiltzen ari naizela pixkanaka”

Nina De Juanek (pianoa eta ahotsa), Paco Lopezek (gitarra eta ahotsa), Alejandro Ovejerok (baxua), David Schulthessek (teklaturak) eta Ekain Elorzak osatzen dute Morgan

**MUSIKA • ARITZ MALDONADO**

Hamahiru urtegaz hasi zen bateria jotzen Ekain Elorza berriztarra. Ibilbide profesionala egiteko asmoz, Madrilerako jo zuen, eta ordutik hamasei urte igaro ditu partxeak astintzen. 2012an Morgan taldea jaio zen, eta 2015ean 'North' diskoa kaleratu zutenetik, gelditu barik egon da boskotea. Aurten, 'Air' lana kaleratu dute. Inurri lanari esker, BBK Live, Mad Cool eta Jazzaldia jaialdietan egongo dira uda honetan. O Son Do Camiño jaialdira bidean egin ahal izan zuen ANBOTOK berba Elorzagaz. Zapatuan Elorrion egongo dira, Musikairen.

Presio handia igarri duzue 'Air' hau grabatzeko?

Egia esateko, ez. North grabatze-

rakoan erabili genuen filosofiari berari jarraitu diogu. Pixkanaka kantuak lantzen hasi ginen, zer bilatzen genuen jakin barik. Egia esan, aurrekoan baino denbora gutxiago eduki dugu, bira amaieran hasi ginelako abestiak lantzen. Uztailean hiruzpalau egunez estudio batean egon ginen konposatzen. Gero, bi astez estudioan egon ginen kantuak maketatzen, eta bira amai-

“**Ez dugu presiorik igarri 'Air' grabatzeko, aurrekoan erabili genuen filosofiari berari jarraitu diogu**”

tu eta gero estudioara sartu ginen abestiak amaitu eta grabatzera. Jose Nortesen La Cabañan grabatu dugu berritako, aurreko grabaketan oso gustura egon ginelako beragaz. Ezberdina da bigarren disko bat ateratzea, batez ere ikusmina badago, baina, egia esateko, nahiko lasai egon gara.

**Espero zenuten 'North' diskoak horrelako harrera edukitzea?**

Ez genuen espero, sorpresa izan zen guretzat. Madrilen kontzertu batzuk egin genituen diskoa grabatu aurretik, baina ez genekien zer gertatuko zen hortik aurrera. Ez geneukan promoziorik, ez managerrik, ez birarik, ez ezer. Sol aretoan jo genuen lehenbiziko kontzertuan bete egin genuen, eta hortik areto handiago batera jauzi egitea pentsatu genuen; hiru hilabetera-edo egin genuen hori, eta ordurako laguna zen manager batez jarri ginen harremanetan. Nina Quique Gonzalezegaz zegoen biran, eta horrek ere laguntzen du. Pixkanaka joan gara, inolako planik egin barik, eta begira!

**2016tik ez zarete geratu ere egin.**

Bai, horrela da. *Air* lantzerako orduan, baina, lasaitasuna eduki dugu. Aurreko diskoa Nina, Paco eta nire artean egin genuen; honetarako, Ovejero eta Schulthess taldera sartu direla igarri dugu. Izan ere, elkarrengaz 80 kontzertu egin ditugu biran, eta diskoa horren ostean landu dugunez, nahiko erraza izan da guztia. Beharbada urtebeteko

atsedenaldia hartu bagenu urdurriago egongo ginen, baina ez da horrela izan.

**Zelako harrera izan dute abestieriek kontzertuetan?**

Hainbat kantu berri sartu ditugu erreperatorioan, baina ez dago jauzi handirik, ondo enkajatzan dute. Oso ondo hartu dituzte. Gero eta jende gehiago dator kontzertuetara, eta gero eta areto handiagoetan jotzen ari gara. Udan gelditu barik ibiliko gara, urte bukaerara arte kontzertu pila ditugu eta hasi gara batzuk lotzen datorren urterako ere. Itxura oso ona du guztiak. Ez dakit kanpotik nola ikusiko den guztia, baina guretzat pixkanaka joan da guztia, lan asko eginda, oso progresiboa izan da guztia.

**Ezagutzera emateko, lehengo bideari jarraitzen diozue zuek, kontzertuak eskaintzen eta ahoz ahokoagaz. Galtzen ari da hori?**

Bai, eskola zaharrekoak gara gu. Ondo ikusten dugu promozioa egitea, gu ere gehiago egiten ari gara orain, baina oholtza gainean erakusten du talde batek balio duen ala ez. Lehenengo lanagaz oso

“**80 kontzertuko bira egin ostean hasi ginen diskoa lantzen, eta horrek dena erraztu duela uste dugu**”

promozio gutxi egin genuen, baina kontzertu asko jo genituen, eta horrela lortu dugu lekutxo bat egitea. Urte amaieran Extremadurara goaz, toki txiki batean jotzera. Bettezen bada, ondo, eta bestela, berriz itzuli beharko dugu. Madrilen leku handietan jotzen dugu, baina Mallagarako joaten bagara eta toki txikiagoa bada ere, ondo. Momentu oso polita bizitzen ari gara eta asko disfrutatzen ari gara. Kontzertuetara etorri ohi denak errepikatu egiten du, eta lagunak ekartzen ditu, gainera. Eta horrela aitortu izan digute zaleek; kontzertuen ostean diskoak saltzen jartzen gara *merchandise* gurean, eta zale asko etorri zaizkigu hori esatera eta diskoak erostera. Promozioa egitea ondo dago, baina oholtzan ez baduzu zure lana ondo egiten, ez du ezertarako balio. **Berezia egiten zaizu Durangaldean jotzen duzunean?**

Bai, noski. Niri sekulako ilusioa egiten dit, azken finean hamasei urte daramatzat Madrilen. Lagunak eta familiakoak ia beti datoz, baina Madrilen sorturiko talde batez etorri, eta adibidez Plateruenean ia 400 lagun biltzea itzela da niretzat. Elorrion askotan jo izan dut, eta beti oso gustura, gainera; gaztexasen, txosnetan... toki askotan jo izan dut bertan. Orokorrean, bostoi asko gustatzen zaigu Euskal Herrian jotzea, ilusio berezia egiten digu. Hile amaieran Jazzaldian ere joko dugu, eta oso gogotsu gaude kontzertu horretarako.



**Musikagintzako ibilbide profesiona-  
la iraupen lasterketa gisa definitu  
izan duzu beti. Gakoa eusten jakitea  
ei da.**

Hamasei urte hauek oso garai polita izan dira. Ez dut kezarik. Lan asko egin dut, ordu pila eman ditut lokalean sartuta entseatzen, furgonetan sartuta alde batetik bestera eta diskoak grabatzen edo taldeekin jotzen. Beti lanean egon naiz, eta beti hobetzen saiatzen, eta konturatu barik pasatu zaizkit urte hauek. Hamasei urte hauetan egindakoaz hausnartzen hasi naiz, lortu dudak guztiaz, izan ere, pixkanaka, gura nuen hori lortzen ari naizela ikusten ari naiz. Hemendik aurrera bizitza nola planteatu ere pentsatzen ari naiz. Gustura nago Madrilen, eta ondo

“  
**Ilusio handia  
egiten dit Madrilen  
sorturiko talde  
bategaz Durangaldera  
itzultzeak**”

doa guztia. Egia da, baita ere, azkenaldian gehiagotan joan naizela Euskal Herrira, familia ikustera. Aurrerantzean ez dakit zer egingo dudana, baina Morgan zein Dinero estatus nahiko onean daude orain, eta horri esker beste modu batera jokatu ahal dut.

**Hamaika proiektu dituzu esku artean.** Morgan eta Dinero dira nire proiektu nagusiak; iaz, adibidez, nahiko zaila izan zen, baina aurretik guztiok dugu lehentasun moduan Morgan, eta horrek erraztu egiten du guztia. Horrez gainera, Sei Urtegar diskoak grabatzen ditut. Agendak uzten didanean, Cobragaz jotzen saiatzen naiz. Aparte, disko berri bat grabatu dut Gabi Planasegatz; aurkezpen kontzertua irailan joko dugu, baina ez dakit nola moldatuko garen kontzertu gehiago eskaintzeko. Saltogaz ere jotzen ibili naiz, baina orain biran daude, eta nik ezin dut beraiekin jo. Azkenik, Cuerno taldeagaz urte amaiera aldera kaleratuko dugu



diskoa; Alain Martinez Dineroko baxu-jotzailearen proiektu berria da. Santi Garciagaz grabatu dugu, Ultramarinos estudioetan.

**Doinu ezberdin ugari jorratzen dituzu talde horietan. Zu zein estilogaz zaude erosoer?**

Txikitik rock gogorra jotzen ikasi nuen. Dut asko entzuten nuen, Su Ta Gar, Metallica, Soundgarden, Nirvana, Rage Against The Machine... Talde horien diskoak jarri, eta gainera jotzen nuen. Ordu pila eman nituen hori egiten. Orduan, Cobra eta Dinerogaz jotzen dudanean, gaztetan ikasi nuen hori guztia erakusten dut. Gero, Madriler a etorri nintzen eta estilo ezberdinak ikasi ditut bertan; beste teknika batzuk garatu ditut eta

musika asko entzun dut. Morganezag jotzen dudanean, gero ikasi dudana hori guztia ateratzen dut, Ekainen bertsiu helduago bat.

“  
**Dut, Metallica,  
Nirvana... talde horien  
diskoak jarri eta ordu  
asko eman nituen  
gainera jotzen**”

**Imajinatzen zenuen, Hyssopusen garaietan, adibidez, hona iritsiko zirela?**

22 urte igaro dira! Orain dela hiru bat aste Berrizen egon nintzen. Eskolatik pasatu eta gimnasioa ikustera joan nintzen, izan ere, hortxe jo genuen gure lehen kontzertua. Argazkia atera eta Madrilerko lagunei bidali nien. Ostean, errepasoa egin nuen, eta itzela izan zela konturatu nintzen. Eta hortik aurrera gertatutako guztia surrealista izan da. Gero [elkarrizketa egin zen goizean] Lenny Kravitz aurretik jo behar dugu! Kontzertua jo, trasteak batu, eta eszenatoki albotik Kravitz ikusi ahalko dugu. Honek guztiak ukitu surrealista bat du, eta ni topera disfrutatzen ari naiz. Neketzen naizenean, abisatuko dut, baina, oraindik behintzat, ez du itxura hori (barrez).

**Geure Durangaldea**

Fernan Ruiz Larrigan Euskaltzalea



**Sargoria**

Gaueko trumoi hotsa eta oinaztuak, sargori etxe barruan. Ume ginenean, auzokide musikazale hura han egoten zen, balkoiko ateak zabal zabalik, aulkian eserita ikuskizun ikaragarriaz gozatzen. Horixe egin dut neuk ere, mendebaldeko balkoira irten naiz, agian, ekialde/hegoalderako ikuspegi lausoegia delako.

Baretu du, euri jasak eguneko sargoria akabatu du, eta oherako baino kaleko freskurarako gogoak bultzatuta, banao. Sesioa dute beheko lokaleko gazteek Espainiako futbol selekzioari jipoia eman eta etxera bueltan bidali dutelako, bidegabekeria. Leihotik kuxkuxean, jarraitzaile sutsuenen samina erakutsi dute pantailan, aberri baten negarra, amorrua... Bidegorri bakartirantz noala, gazte baten samina eta amorrua ikusi ditut, Done Jakue bidea bizikletan egiten ari zirela, mozkortuta zihoan auto gidari batek hildako bikotea errepide bazterrean zerraldo. Ibaizabalera iritsi naiz, auzokide musikazale harekin umetan joaten ginen presa ingurura; ur lohia dakar euri jasaren ondorioz.

Ur burrunbatsuek Mediterraneoko garrasiak ekarri dizkirate, migratzaileen DNAren ezaugarri bilakatuz doan samina. EBko liderrek itsasoan ito ez direnentzako a(tx) silo zentroak eraikiko dituzte, hara bildutakoak sailkatu, bereiztu eta atzera bidaltzeko, gordina. Mina eta samina nahinon, oparo bizi garenona eta goseak jota bizi direnena. Saiatu naiz besten lekuan ipintzen barruak eskatzen didanari men eginez, baina ezinezkoa egin zait, eta hor nago, ikusle, irakurle... Sargori dago.

<p>San Agustin Kultur Gunea Plateruena Kafe Antzokia</p> <p><b>uda giro</b> 2018</p> <p><i>Durango</i></p> <p>JAZZRUENA - ZINEMA - ANTZERKIA - DANTZA MUSICA - CINE - TEATRO - DANZA</p>	<p><b>Aurora Abasolo Parkeal</b></p> <p>Uztailak 6 - 19:00etan</p> <p><b>MARKELIÑE</b> Chef Nature</p> <p>Antzerkia</p>	<p><b>Plateruena<sup>2</sup></b></p> <p>JAZZRUENA</p> <p>Uztailak 11 - 21:00etan</p> <p><b>BUFFALO</b></p> <p>Musika</p>	<p><b>Ezkurdi<sup>3</sup></b></p> <p>Ekainak 14 - 19:00ean</p> <p><b>ERTZA DANTZA</b> Meeting point <b>DOOS COLECTIVO</b> El fin de las cosas <b>KUKAI &amp; BRODAS</b></p> <p>Topa Dantza</p>	<p>San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA</p> <p><b>PLATERUENA</b></p> <p><b>SAN AGUSTIN Kultur Gunea</b> Sanagustinalde, 12 DURANGO Tel.: 946 030 021 sanagustin@durango.eus</p> <p><b>PLATERUENA Kafe Antzokia</b> Landako Hiribidea, 4A DURANGO Tel.: 946 030 300 jatekxoa@plateruena.net</p>
--	---	--	--	--



# Joseba Fernandez ZEAKe lehendakari ohiak eginiko lan esker ga gogoratuko dute Zornotzako XXI. Enrike Renteria pintura lehiaketan

Atal bi izango dira: aire zabalekoa, eta herriko balkoietan ezartzen diren obrarik onena saritzeko lehiaketak

**MARGOLARITZA** • A.M.

Enrike Renteria artista zornotzarren figura omenduko dute, beste urte batez, asteburuan XXI. Enrike Renteria Pintura Lehiaketa eginez. Nobedade nagusi bat dakar aurtengo lehiaketak: aire zabaleko atalean, Zornotzako zenbait tokitan bildu beharrean, artistak gune

mugatueta jarriko dira margotzen datozen edizioetan. Aurtengoan, Gudari, Abasolo Apezpiku,

**Gudari, Abasolo, Apezpiku, Ibaizabal eta Sabino Arana kaleetan bilduko dira artistak**

Ibaizabal eta Sabino Arana kaleen artean sortzen den gunean margotuko dute.

Zornotzarrak pozik daude lehiaketak izan duen ibilbideagaz, izan ere, herriko lehiaketa zenak kanpoko parte-hartzaile ugari erakartzen ditu egun. "Besteak beste, Madril eta Valentzia hirietatik datoz parte-

hartzaileetako batzuk", adierazi du Andoni Iturbe Zornotzako Elkarte Artistiko eta kulturaleko lehendakariak. Horrez gainera, herriko memoria historikoaren bilduma bat ere egiten dute lehiaketagaz, pinturen bidez herria nolakoa zen ikusi daiteke eta.

Zornotzako balkoia apaintzeko ere baliagarria da lehiaketa, Zintzilik ataleko parte-hartzaileen obrak balkoietan ezartzen dituzte eta Zornotzako jaiak amaitu arte. Antolatzaileek EHUren ekarpena azpimarratu gura izan dute. Izan ere, 'Zintzilik' atalean parte hartzen dutenetako asko Arte Ederretako ikasleak dira. Epaia domekan, uztailak 8, jakinaraziko dute, Zelaieta Zentroko entzun aretoan.

**Joseba Fernandez gogoan**

Aurtengo lehiaketa antolatzeko, zailtasun handiak izan dituztela onartu du Andoni Iturbe ZEAKe lehendakariak. Izan ere, otsailan Joseba Fernandez hil zen, gaixotasun larri baten ondorioz; Fernandez elkarteko lehendakaria izan zen 2000. urteaz geroztik. "Joseba buru-belarri ibili ohi zen lehiaketa antolatzen, eta lehiaketagaz jarraitzea litzateke omenaldirik onena", azaldu du Iturbek aurkezpenean.



David Balas.

## Daniel Balas Bartolome Ertzillako ikasleak plaza lortu du Musikenen

**MUSIKA** • A.M.

Daniel Balas Bartolome Ertzillako piano ikasleak plaza lortu du Musikenen goi mailako kontserbatorioan, eta, hain zuzen, pedagogia espezialitatean plaza lortu duen bigarren ikasle durangarra da. Udalak eman du albistearen berri, prentsa ohar bidez, eta gazte durangarra zoriondu du.

Daniel Balasek 7 urte hasi zituen musika ikasketak Durangoko Musika Eskolan, eta 12 urte erdi mailako ikasketek ekin zien.

2006-2007 ikasturte hona, 42 ikasle amaitu dute erdi mailako zikloa Durangoko kontserbatorioan. Balas Ines Parbole piano irakaslearen eskutik hazi da musikari lez.



Luciano Martinez, Andoni Agirrebeitia eta Andoni Iturbe.

## 'Chef Nature' kale jatetxea antzezlan eskainiko du Markeliñek Uda Giro egitasmoan

Antzezlan barikuan, hilak 6, ikusi ahalko da, Aurora Abasolo parkean (eguraldi txarra eginez gero, Andra Marian)

**ANTZERKIA** • A.M.

Ezertarako astirik barik bizitza tokatu den garai honetarako, familia osoarentzako moduko erantzuna prestatu du Markeliñe Antzerki taldeak: *Chef Nature* antzezlan. Familian dastatzeko proposamena da obra, edo Markeliñekoek dioten bezala, *kale jatetxea*. Inolako testurik barik, antzezlanak irauten duen orduan ikusleak naturagaz berriro konektatzeko saiakera aurkezten dute antzezleek. Edozein gailu elektronikoa, pantaila eta telefono

mugikor baztertu, eta menuan kontzentratzeko gonbidapena egiten diete mahaikideei, hau da, ikusleei. "Menu anitza, artisaua, terapeutikoa eta dibertigarria eskainiko dugu. Etorri naturaz eta liluraz beteriko jatetxe honetara", adierazi dute taldekideek.

Uda Giro egitasmoa proposamenetako bat da *Chef Nature*. Antzezlan barikuan, hilak 6, ikusi ahalko da, Aurora Abasolo parkean. Eguraldi txarra eginez gero, Andra Mariko elizpean antzeztuko dute.



'Chef Nature' familia osoarentzako ikuskizuna da. Txelu Angoitia.





## Jazzeruena

KONTZERTUAK DURANGO :: Uztailak 11

### Buffalo

Jazzeruena egitasmoak aurtengo edizioan dakarren proposamenik modernoena da Buffalo hirukote zauraztarra. Jazz doinuak post eta rock ukituekin uztartzen dituzte gipuzkoarrek, eskaintza originala eta estiloz beterikoa proposatuz. *Buffalo* eta *Zinematik* diskoen jarraipena izango den lana irailan kaleratuko du hirukoteak. Kontzertua 21:00etan hasiko da eta Plateruena kulturguneko terra-

zan izango da, eguraldiak lagunduz gero. Ander Ederrak (gitarra), Joanes Ederrak (baxua) eta David Gorospek (bateria) osatzen dute taldea. Hirukoteak doinu esperimentalak erabiltzen ditu, eta inprobisatu ere egiten du, erritmo eta soinu desberdinak uztartuz. Doinu horiek elkarri eragiten diote, eta azpimarratzekoa da zuzenekoetan looper pedala erabiltzen dutela.

### Uztailaren 6an

**DURANGO antzerkia**  
**Markeliñeren 'Chef Nature' antzezlan**, 19:00etan, Aurora Abasolo parkean (eguraldi txarra eginez gero, Andra Mariko elizpean).

**ELORRIO musika**  
**Juan Ortiz Tokyo Quartet taldearen kontzertua Musikaireren baitan**, 22:30etan, Lariz jauregian.

**ZALDIBAR jaiak**  
**Mendi irteera familiarra**, 08:30etan, udaletxe plazan;  
**herri kirol erakustaldia**, 12:30etan, udaletxe plazan;  
**herri kirolak**, 17:00etan, udaletxe plazan;  
**eskulanen erakusketa**, 17:30etan, jubilatuen etxepean;  
**pilota partiduak**, 18:00etan, Olazar pilotalekuan;  
**Ttek elektrotxaranga**, 19:00etan;  
**Storm, Bultz eta Koban taldeen kontzertua**, 22:30etan, txosnagunean;  
**Dj Josemarigaz dantzaldia**, 23:00etan, Euskal Herria etorbidean;  
**DJ Amen&Diego**, 02:00etan, gaztetxean;  
**kaltzontzilo, kulero eta tanga martxa**, 03:00etan, txosnagunean.

### Uztailaren 7an

**ELORRIO musika**  
**Morgan taldearen kontzertua Musikaireren baitan**, 22:30etan, Lariz jauregian.

**ZALDIBAR jaiak**  
**Arku jolasak**, 10:00etan, Olazarren;  
**tortilla txapelketa**, 12:00etan, eskolako aterpean;  
**gazte bazkaria**, 14:30etan, txosnagunean;  
**3x3 saskibalo txapelketa**, 16:00etan, kiroldegian;  
**olinpiadak**, 17:00etan, txosnagunean;  
**eskulanen erakusketa**, 17:30etan, jubilatuen etxepean;  
**apar festa**, 18:00etan, udaletxe plazan;  
**Sakatu elektrotxaranga**, 18:30etan, txosnagunean;  
**afari merienda herrikoia**, 19:00etan, Olea kalean;  
**erromeria Urrats taldeagaz**, 00:00etan, txosnagunean;  
**DJ Alexis**, 02:00etan, gaztetxean.

### Uztailaren 8an

**ELORRIO musika**  
**Borja Ytuquepintasen 'Sueños de Arena' ikuskizuna, Musikaireren baitan**, 22:30etan, Lariz jauregian.

**ZALDIBAR jaiak**  
**Herrialdekako eskola arteko txirindulari proba**, 10:30etan, Autonomia kaletik;  
**trikitilariekin kalejira**, 11:00etan;  
**umeen jolas parkea**, 11:00-13:00 eta 16:00-19:00 bitartean, eskolako patioan;  
**euskal dantzak**, 12:00etan, udaletxe plazan;  
**eskulanen erakusketa**, 17:30etan, jubilatuen etxepean;  
**bertso saio musikatua**, 18:00etan, Zaldia plazan;  
**antzerkia, Barsanti Teatroa taldearen 'Kale Gorrian' antzezlan**, 20:00etan, Zaldia plazan;  
**jaietako argazki emanaldia**, 22:00etan, udaletxe plazan;  
**su artifizialak**, 23:00etan, gaztetxe ondoan.

**ZORNOTZA margolaritza**  
**Enrike Renteria pintura lehiaketaren sari banaketa**, 18:00etan, Zelaieta zentroan.

### Uztailaren 9an

**ABADIÑO jaiak**  
**Mendiolako San Kristobal jaiak. Txopoa altxatzea eta trikitilariak**, 19:00etan;  
**berakatz zopa auzokoentzat, eta, ostean, Fredi Paia, Onintza Enbeita eta Aitor Bizkarraren bertso saioa**, 21:30etan.

### Uztailaren 10ean

**ABADIÑO jaiak**  
**Mendiolako San Kristobal jaiak. Meza**, 11:30etan;  
**dantzariak**, 12:30etan;  
**ardoa, ogia eta gazta**, 13:00etan.

### Uztailaren 12an

**DURANGO musika**  
**Mikel Gorosabelen kontzertua, Eguenero egitasmoaren baitan**, 21:00etan, Intxaurre elkartearen.

### Uztailaren 13an

**ABADIÑO jaiak**  
**Mendiolako San Kristobal jaiak. Audience, Crim, Txapito Guzman eta Ibarrako Langostinuek taldeen kontzertua**, 22:00etan.

### Uztailaren 14an

**ZALDIBAR jaiak**  
**Zaldibarko mendi martxa**, 07:00etan, Zaldia plazatik.

## Zinema

### :: Durango ZUGAZA

• **Ant-Man y La Avispa**  
barikua 6: 19:30/22:00  
zapateria 7: 17:00/19:45/22:30  
domeka 8: 16:30/19:00/21:30  
astelehena 9: 18:30/21:00  
martitzena 10: 20:00  
eguztzena 11: 20:00

• **Ocean's 8**  
barikua 6: 19:30/22:00  
zapateria 7: 17:00/19:45/22:30  
domeka 8: 16:30/19:00/21:30  
astelehena 9: 18:30/21:00  
martitzena 10: 20:00  
eguztzena 11: 20:00

• **A La Deriva**  
barikua 6: 19:30/22:00  
zapateria 7: 19:45/22:30  
domeka 8: 19:00/21:30  
astelehena 9: 18:30/21:00  
martitzena 10: 20:00  
eguztzena 11: 20:00

• **Luis y Los Alienígenas**  
zapateria 7: 19:45/22:30  
domeka 8: 19:00/21:30

### :: Zornotza ARETOA

• **Tully**  
barikua 6: 20:15  
zapateria 7: 19:30/22:00  
domeka 8: 20:00  
astelehena 9: 20:15

• **Mañana**  
astelehena 18: 17:30/20:30



# PLAZANBAZAN

# BAZAN

6

[www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus)  
Egilea: Garbine Ubeda (Aiarri)

Sartu  
[www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus)  
web atarian eta  
denbora-pasa hauen erantzunekin  
batera beste hainbat jolas aurkituko  
dituzu.



**IKUSI MAKUSI** Goiko laukian dauden elementu guztiak beheko laukian ere badaude, lau izan ezik. Zeintzuk dira?



## Gogoa non...

Jarraian zer datorren asmatzen baduzu zsaera zahar ezagun bat osatuko duzu.

- Gogoa non, begiak zoro eta bihotza edon
- Gogoa non, zu beti berton.
- Gogoa non, lagunik ezin aurkitu inon.
- Gogoa non, normalki Amoroton.
- Gogoa non, poza beti da on.
- Gogoa non, lanak hor konpon.
- Gogoa non, zangoa han.





### Estropezua

Estropezu egin duen emakumeak oinetakoa apurtu du, eta horrez gain, bi gauza desagertu zaizkio eta berri bat agertu. Zeintzuk?

### Osatu

Erdizka margotuta dauden zazpi irudi hauetatik hiru elkartuz gero, etxea behar bezala osatuko duzu. Batura horretan elementuek (kea, teilatua, atea...) behin bakarrik agertu behar dute koloreztatuta. Har ezazu kolore zuria gardena balitz bezala.



CENTRO HÍPICO  
DUKIENA  
ABADIÑO-BERRIZ

[centrohipicodukiena.com](http://centrohipicodukiena.com)

Informazio eta erreserbak



631 115 247

Ekitazio eskola bat baino gehiago!



Jarrai iezaguzu



In English!

### UDALEKUAK

- Ekaianaren 25etik uztailaren 27ra
- Irailaren 3tik 7ra
- Irailaren 10etik 14ra



# “Saskibaloia jokalariek produktu bat gara; saldu dezakezuna aurreko urtean egindako lana da”

Makina bat abentura eta zoritxar bizi ostean, gaur egun Madrilen bizi da Nerea Larrazabal, eta talde bila dabil saskibaloian jokatzeko jarraitzeko



**Nerea Larrazabal Sanchez**  
Saskibaloia jokalaria  
Durango | 1984

## Sentimendu kontraerriak eragiten dizkizu Tabirakok?

Niretzat disgustu handia izan zen, une ikaragarri latza. Umetatik dena jokatzeko nuen, nire adineko partidua zein goragokoak, igo egiten nindutelako... asteburuak partiduz beteta nituen eta, bat-batean, kalera. Pentsatzen jarrita, azkenean fabore bat egin zidaten. Tabirakotik bota ez banindute, gerora bizi izan ditudan hamaika bizipen galduko nituen.

## Bizipen horietako hainbat Galdakotik Gernikara joan zinenen izan zenituen.

Bigarren Mailatik Lehenengo Mailara igo ginen, estatuan dagoen mailarik gorenera.

## Asko jokatu zenuen?

Ez. Zoritxarrez, lotailu gurutzatua hautsi nuen denboraldi hasieran.

## Kirolari batek izan dezakeen lesiorik txarrenetakoa.

Txarrena. 30 urte nituen eta ordura arte zorzea izan nuen lesioekin, baina... Gernikak helburu handiak zituen urte hartan eta hara joatea pauso garrantzitsua izan zen niretzat. Ibaizabalen maila onean aritu nintzen, Euskadiko selekzioagaz ere jokatu nengo... ilusionatuta nengo. Beraz, urtea hasi eta segituan lesionatzea kolpe gogorra

kaini. Urte osoa jokatu barik, taldea Lehenengo Mailan... tira, pena izan zen, baina ulertzekoa.

## Durangora itzuli zinen, Tabirakora. Zergatik?

Saskibaloia jokalariek produktu bat gara. Saldu dezakezuna aurreko urtean egindako lana da. Nik zer salduko nuen? Lesio luze batetik nentorra? Gehiago mugitu banintz, beharbada aurkituko nuen zerbait,

“**Lesioaren ostean, saskibaloia neuk utziko nuela esan nion neure buruari, eta ez alderantziz**”

baina belauna zelan neukan ondo probatu barik... Tabirakora itzuli nintzen zuzendaritza desberdina zegoelako, Durango nire etxea delako eta lagunak han jokatzeko zebiltzalako. Gainera, belauna probatu gura nuen eta banekien minutuak izango nituen. Arrazoi horientatik itzuli nintzen, ez klubarekiko lotura berezia sentitzen nuelako. Urtebete eman nuen han.

## Zelan amaitu duzu Madrilen?

Tabirakoren ostean, Segoviako talde batek fitxatu ninduen. Tabirakoren maila berean zebilen, baina saskibaloitik bizitzeko edo, gutxienez, bizirauteko aukera eskaintzen zidan. Horregatik joan nintzen, gustatzen zitzaidanetik bizitzeko aukera nuelako. Azken urtean lotailu gurutzatua hautsi nuen, igoera fasean. Horrelako lesio serioetik sei hilabetez errekuperatzea ez zitzaien nahikoa iruditu eta bota egin ninduten. Ingeniaria naiz eta lan kontuengatik etorri nintzen Madriler. Orain talde bila nabil.

## Belaun berean izan zenuen lesioa?

Ez, bestean. Beste une gogor bat. Lehenengo lesioa izan nuenean neure buruari esan nion sasoia heltean neuk utziko nuela saskibaloia eta ez ninduela saskibaloia ni utziko. Bigarren lesioan pentsamendu berari heldu nion eta egoerari buelta ematea lortu nuen. Alderdi mentala funtsezkoa da.

## Segovian saskibaloitik bizitzeko aukera izan zenuen. Emakumeen kirola balioetsi dago han?

Ez. Gizonen kirola eta, batez ere, futbola eta areto futbola sustatzen dira. Emakume batek kirol lorpenak izatea ez dago baloratuta han. Nik Segoviako bizi izan nuen, baina arazo orokorra dela uste dut. Kontua da jende batek saskibaloia taldearen aldeko apustu sendoa egin zuela. Baina igoeraren bat eskuratzen denean eta pauso handi bat eman gura denean konturatzen zara gutxi batzuen lana eta sostengua baino gehiago behar dela.

## 34 urte dituzu. Bizitzeko une honetan, zer bilatzen duzu talde batean?

Urteak denontzat pasatzen dira. Barruan badugu zerbait ahalik eta mailarik altuenean jokatzeko eskatzen diguna. Gainera, Madrilen Bigarren Mailako talde dezente daude, maila horretan asko gozatu dut eta gustatuko litzaidake erreplikatzeko. Baina, aldi berean, ez ditut 25 urte eta gorputzak gustatzen zaidan kirolagaz gozatzeko eskatzen dit. Ea zer aukera sortzen diren.

## Saskibaloia jokalariek izateari uzten diotuzenean, kirolari lotuta jarraitzea gustatuko litzazuke?

Segovian gaztetxoak entrenatu nituen eta asko gustatu zitzaidan. Campus batean ere jarduten dut. Gustatuko litzaidake saskibaloia lotuta jarraitzea, entrenatzaile moduan ez bada beste moduren batean. Hainbeste gustatzen zait mundu hau!

## SASKIBALOA • JOSEBA DERTEANO

Kirol ibilbide luze batek izan ohi dituen argi-ilunak ezagutzeko gidiliburu ezin hobea da Nerea Larrazabalen istorioa. Talde garrantzitsuetan jokatu eta igoerak ospatu ditu une gozoetan. Zenbaterik dute curriculumean Lehen Mailarako igoera bat? Baina lesio delikatuak eta klubetako erabaki mingarriak ere aurre egin behar izan die momentu garrantzietan.

## Durango Tabirako taldean urte as-

## ko eman zenituen. Zelan gogoratzen duzu etapa hura?

Umetatik 25 bat urtera arte egon nintzen, bota egin ninduten arte. Ni eta beste batzuk bota gintuzten. Ez nekiela saskibaloian jokatzeko esan zidaten, ez nuela kirol honetarako balio. Hori da bertsio ofiziala. Galdakaora joan nintzen, Ibaizabal taldera. Bigarren taldean hasi eta hilabetez lehenengora igo ninduten. Hau da, Bigarren Mailan aritu nintzen, Tabirako zebilen maila baino gorago. Kurioso da, ezta?

“**Utzi ostean, saskibaloia lotuta jarraitu gura nuke. Hainbeste gustatzen zait mundu hau!**”

izan zen. Kluba oso ondo portatu zen nigan. Asko lagundu zidaten eta ondo errekuperatu nintzen, baina ez zidaten jarraitzeko aukerarik es-

CERAMICAS  
**MACOBER**  
MATERIAL DE CONSTRUCCION  
**MACOBER**  
Chimeneas  
ERAIKUNTZAKO MATERIALA  
ZERAMIKA ETA GRESA  
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890  
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

**DURANGALDEKO ALBISTEAK JASOTZEKO BIDE BERRIAK**

Whatsapp bidez  
**Bidali 'ALTA' 688 635 041 zenbakira whatsapp bidezko mezua bidalita**

Telegram bidez  
**Bilatzailearen bidez 'ANBOTO' kontuan sartu eta egin klik 'HASI' botoian**

@anbotokomunikabideak  
@anboto  
@anboto  
anboto komunikabideak



# Harri jasotzen Euskadiko azpitxapeldun geratu da Karmele Gisasola mallabitarra

Txapelketan lau bider jaso zuen entrenamenduetan buruhaustea eragin zizkion harria



Karmele Gisasola hainbeste kezka eragiten zion harri kubikoagaz lanean, Usurbilen. Egursport

## HARRI-JASOTZEA • JOSEBA DERTEANO

Arduratuta joan zen Karmele Gisasola (Mallabia, 1994) Euskadiko harri-jasotze txapelketara. Hiru harri motak gutxienez behin altxatu ezik deskalkifikatu egingo zuten, eta kubikoak buruhaustea emanak zizkion entrenamenduetan. "Nerbioak gainezka joan nintzen", onartu du. Azkenean, behin

bakarrak ez, lau bider jaso zuen 75 kiloko kubikoa eta, harri denak kontuan hartuta, azpitxapeldun geratu zen Usurbilen.

"Espero baino hobeto joan zen dena", dio mallabitar gazteak. Hiru harri motekin egindako 31 jasoaldietan 2.162 kilo jaso zituen. Urrun geratu zen txapela. Gaur egun bes-

te maila batean dago Idoia Etxeberria: 64 jasoalditan 4.712 kilo.

Gisasolak, batez ere, harriekin lanean jarraituko du udako erakustaldietan. "Harriekin kostatu egiten zait oraindik, eta teknika aldetik badut zer ikasi. Ingudeagaz ere bai, baina gehienbat harriekin ibili naiz", dio.

## Bizkaia Durangok Italiako Giroan parte hartuko du gaurtik hurrengo domekara

### TXIRRINDULARITZA • J.D.

Denboraldiko hitzordurik garrantzitsuenetakoa den Italiako Giroari ekingo dio gaur Bizkaia-Durango Euskadi Murias taldeak. Italiara joan den zazpi-koteko taldeburua Alice Maria Arzuffi izango da. Italiarrak 17. tokian amaitu zuen orain urte bi, eta oso motibatuta dago etxeko lasterketarako.

Arzuffik ondoko txirrindulariak izango ditu beragaz: Dani Christmas eta Henrietta Colborne britainiarrak, Sandra Alonso alacantarra, Lucia Gonzalez asturiarra, Enara Lopez bilbotarra eta Cristina Martinez valentziarra. Azken honek, Martinezek, 23 urtez azpiko Espainiako txapelketa irabazi du oraintsu, eta sasoi batean dago.

Gaur taldekako erlojupekoagaz hasiko dute Giroa. Etaparik gogorrena uztailaren 14koa izango da, azken-aurrekoa, hain zuzen. Zoncolan mendate mitikoa igoko dute. Hurrengo egunean amaituko da Giroa, Friulli herrian.

## Adituaren txokoa

Alfontso Arrio Monasterio  
ETBko kirol kazetaria



### Uztaila

Hilabete berezia izan ohi da beti oporraldietako lehenengoa. Kirola egitea gustuko dugunontzat, urteko garairik ederrenetakoa izaten da. Lagunekin aurrez prestatutako bidaiari ekin aurretik, goizean goiz furgonetan bizikletak eskegitzerakoan sentitzen dena kitzikagarria da.

Ilunpetan irten, autobidean sartu, lagunartean barre-algaraka joan eta eguneko lehen kafea toki ezezagun batean hartzean, berehala ohartzen zara oporrak hasi dituzula. Eta zer esanik ez, pentsatutako lekura iritsi, kuloteak, maillota eta oinetakoak jantzi eta bizikleta hartzerakoan. Pirinioetako eta Alpeetako aldapatzarrek igo eta norberaren buru-estimua puzten ari dela sentitzeak ez dauka preziorik. Ez eta ondorengo freskagarriak edo pastak ere. Kanpinera jaitsi osteko solasaldiak ere gogoangarriak dira. Jan-edanean, ordu-txikietan pasadizoak kontatu, bakoitzaren jakituria erakutsi eta zalantzaren bat dagoenean internetek apustuak egiteko beta zapuzten duela jabetzen zara.

Hau guztia bizitzeko parada ematen duten erantzuleak, ordea, hiru astean zehar errepidetan kilometroak egiten dabiltzan ziklistak dira. Are gehiago esango nuke, errudun nagusiak euskal txirrindulariak dira. Gaur egun ez dugu talderik, baina bai ordezkaturiko gaituen zortzikote bat. Egitura ezberdinetan barreiatuta, beraiei so egongo gara. Aspaldiko partez, podiumera igotzeko aukera du Mikel Landa artistak, denoi ilusioa piztu digun ziklistak. Larunbatetik aurrera begiak telebistako pantailara iltzatuta edukiko ditugu, orduan hasiko da-eta Frantziako Tourra, txirrindularitza lasterketarik handiena.

## Asteko kirolaria



JOSE LUIS ROMERO MINGUEZ  
Durango, Atletismoa

## "62 urte daramatzat atletismoan eta oraindik ez dut erretiratzeko asmorik"

Espainiako txapelketan urrezko hiru domina lortu ditu Jose Luis Romero durangarrak

**mailako Espainiako atletismo txapelketan urrezko hiru domina eskuratu ditu.**

**Zelan joan zen txapelketa?**

Zapatu goizean 400 metroko lasterketa izan nuen. Proba honetan errenta dezentea atera nion bigarrenari. Arratsaldean 100 metroko proba izan nuen eta goizekoagaz alderatuta lasterketa borrokatua izan zen. Baita domekako 200 metroko lasterketa ere.

**Nola zeunden fisikoki?**

Nire sasoirik onenean ez nagoen arren, gustura gelditu nintzen. Denboraldi hasierako asmoa iraillean sasoi batean egotea zen, orduan Munduko Txapelketa jokatzen delako. Han egotea zen nire helburua.

**Beraz, Malagan jokatuko den Munduko Txapelketan izango zara.**

Hala da. Orain deskantsu txiki bat hartuko dut eta, ostean, gogorlan egiten hasiko naiz Malagara

%100ean iristeko. Nire asmoa finalera sailkatzea izango baita.

**72 urte eta dominak lortzen jarraitzen duzu. Erretiroa burutik pasatu ere ez zaizu egingo, ezta?**

62 urte daramatzat atletismoan eta oraindik ez dut erretiratzeko asmorik. Badakit urte onak eta txarrak ditudala aurretik, orain arte bezala. Baina, guk esaten dugun lez, irteera lerroan egoteak ondo eta osasuntsu jarraitzen dugula esan gura du.

**hitz** artekalea 23, durango  
946 810 776  
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#salduenak

**1<sup>o</sup>** Azala erre Danele Sarriguarte / Susa (2018)

**2<sup>o</sup>** BIHOTZ HANDIEGIA Eider Rodriguez / Susa (2018)

**3<sup>o</sup>** ZUBIGILEAK Alfonso Zapico / Astiberri (2018)

**13 | CAMUT**  
22:30ean / Plaza

**14 | SINFONIA**  
19:30ean / Plaza

**15 | THE PRIMITALS**  
22:30ean / Plaza

Musikaire Elorrio 2018 Udako Jaialdia  
www.musikaire.eus

ARRIOLA, Elorrio Jaialdia, BFA, BBK, EROSKI, SEBA, etc.



# Estetika gida

anboto



## Azala udan

Ana Camarero edertasun zentroa

**ANA CAMARERO** | Uda etorri denez, azala zaintzeko eta eguzkiaren aurrean prestatzeko aholkuak dakartza Ana Camarero hurrengo artikuluan. Bere zentroan dituzten aukerak ere berba egiten du.

Uda hasteko modurik onena azala sasoi honetarako prestatzea da. Ana Camarero edertasun zentroan, egoera horretarako egokitutako tratamenduak ditugu, bai aurpegikoak bai gorputz osokoak.

Aurpegikoak:

- Hidratziokoa
- Nutriziokoa
- Esfoliatzailea
- C bitaminaduna
- Kolagenoarena
- Aurpegiko garbiketa

Gorputzekoak:

- Esfoliatzailea
- Hidratziokoa
- Depilazioa zeragaz

Neguan arroparen azpian egon diren zelula hilak ezabatzea garrantzitsua da.

Ez ahaztu azala zaintzea! Gure zentroan eguzkitarako kremak ditugu, aurpegirako zein gorputzerako. Honegaz guztiagaz, ederto prestatuko gara oporrak gozatzeko!



## Ile-apaindegia



**NUKLEO**  
ileapaindegia

**946 582 996**  
Nizeto Urkizu, 14 behea  
ELORRIO

## Ile-apaindegia



**IUNIK**  
ILEAPAINDEGIA  
Antso Estegiz, 1  
DURANGO  
Tel.: 946 216 491



## Estetika zentroa

PSE: 36/16

**Ana Camarero**  
Edertasunerako tratamenduak  
eta aholkularitza

*Jakinarazten dizuego uztailean goiz eta arratsaldean lan egiten dugula eta abuztuan lanaldi trinkoa egingo dugula (9:30etan hasita eguerdira arte)*

**Ondo pasa oporretan!**

Goienkalea, 16-1. esk. • 48200 Durango  
Tel.: 946 817 380 • [www.anacamarero.com](http://www.anacamarero.com)  
Zentru ez-sanitarioa

P.S.: 36/16

# Ostalaritza gida

anboto

## Zornotza



**IBARRA SAGARDOTEGIA**  
Ibarra auzoa, z/g - ZORNOTZA  
Tel.: 946 731 100  
[www.ibarra-sagardotegi.com](http://www.ibarra-sagardotegi.com)

## Durango



**GORA GORA**  
Arriluzea kalea, 2 - DURANGO  
Tel.: 946 811 384

Plater konbinatuak, hanburesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.

## Durango



**KOBIKA JATETXEA**  
San Ignazio, 8 - DURANGO  
Tel.: 946 810 003

Egile sukaldaritza eta tradizionala. Menu bereziak eta karta.

## Durango



**PLATERUENA** Kafe Antzokia  
Landako etorbidea, 4 - DURANGO  
Tel.: 946 030 300 - [www.plateruena.eus](http://www.plateruena.eus)

Bokatak, pintxoak... Azoka egunetan bertako produktuekin egindago menu berezia karpan. Giro paregabea!


## Muxika



**ASTEI JATETXEA**  
Muniketa auzoa 8, MUXIKA  
Tel.: 946 732 318

Bataioak, jaunartzeak, ezkontzak... Enpresa bazkariak. Eguneko menua.

## Durango



**IBAIZABAL KAFETEGIA**  
Ibaizabal taldea, 2A - DURANGO  
Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanburesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.

## Abadiño



**ABARKETERUENA**  
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO  
Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.



# Jaiak!

Otxandio  
2018ko UZTAILA



*Otxandioko Udalak jai  
zoriontsuak opa deutsuez!*



OTXANDIOKO  
UDALA





**Otxandioko jaiak 2018****Uztailak 14, zapatua | Gazte eguna****11:00** Bittor Kapanagari buruzko bisita gidatua.**13:00** Trikipoteoa.**15:00** Bertso bazkaria plazan.**18:00** Gazte ginkana plazan.**20:00** Elektrotzaranga.**23:00** Kontzertuak Gastetxean EZETAERRE, ON! eta DJ MASKARADUNA.**Uztailak 15, domeka | Herri Kantu eguna****12:00** Kantu zaleei harrera.**12:30** Kalez kale kantari.**14:45** Azken kantua plazan.**15:00** Kantu zaleen bazkaria.**Uztailak 17, martitzena****18:30** Otxandioko presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea plazan. Giza Eskubideen Batzordeak deiturik.**18:30** Ohiko Salve Regina abestuko dute Santa Marina elizan, Oihandi abesbatzaren parte hartzeagaz.**19:00** Otxandioko musika bandako kideek botako dute txupina.**19:05** Urtero-urteroko ohiturei jarraituz Danborradak kaleak alaituko ditu Musika Bandagaz batera.**20:00** Eusko Labeleko pintxoak dastatzeko aukera izango da herriko plazan.**20:30** BIDE BATEZ taldearen erromeria**Uztailak 18, eguaztena | Santamaña eguna****12:00** Meza nagusia Santa Marinaren omenez Oihandi Abesbatzaren parte hartzeagaz.**12:30** Otxandioko musika bandaren eta herriko txistularien jalejira.**13:00** Herriko umeen pilota partiduak.**17:30** Pilota partiduak plazan  
Olatz Arrizabalaga-Nagore Bilbao, Leire Etxaniz-Nagore Aramendiren kontra.

Aritz Lasa - Ibon Urrejola, Unai Albarado - Iñigo Pascualaren kontra.

**20:00** Urduri Dantza taldearen erakustaldi berezia.**21:30** Berbena IRATZAR musika taldeagaz.**Uztailak 19, eguena | Umeen eguna****12:00** Otxandioko eskolako seigarren mailako ikasleek umeen eguneko txupina botako dute.**JARRAIAN** Umeentzako tailerrak plazan.**12:30** Arimen aldeko meza.**16:30** Jolas txokoa: adin guztietako haurrentzako puzgarriak plazan.**19:30** Apar festa.**20:00** Karaokea**17:00** Tute eta mus txapelketak.**22:00** "Gernikaren Egiak" dokumentalaren proiektzioa eta ondoren solasaldia.**Uztailak 20, barikua****11:30** Umeentzako puzgarriak herriko pistinetan.**22:30** Koadrilen arteko Play-backa.**Uztailak 21, zapatua | San Martin****12:00** Herriko bandaren kalejira.**12:30** Meza San Martinen.**12:30** Otxandioko Urbiribil Dultzainero taldearen kalejira.**15:00** San Martinen paella-txapelketa, bolo-txapelketa eta zuzeneko musika.**19:30** SAKATU elektrotzaranga kalerik kale.**22:30** Kontzertuak herriko plazan: GLAUKOMA, TREMENDA JAURIA eta ZIRKINIK BEZ.**Uztailak 22, domeka****07:30** Diana eta kalejira.**08:00** Sokamuturra.**12:00** Meza Nagusia.**13:00** Omenaldia 1936. urteko bonbardaketako hildakoei, Andikona Plazan. Andikona Foroak adostutako testua irakurriko dute.**13:45** Ohiko limonada banatuko dute plaza nagusian.**14:00** Otxandioko eta Araiako bandek herriko kaleak alaituko dituzte.**18:00** II. Ingude jasotze txapelketa**19:00** Arabako 2. Mailako aizkolari txapelketa**20:30** Nesken Soka Dantza herriko plazan.**21:00** LOTXO taldearen emanaldia**00:00** "Agur Santa Marina" abestuz jaietako amaiera emango zaie herriko plazan.**ETXEBARRI  
NEKAZALTURISMOA**945 450 123 • 676 947 523  
OTXANDIO *Olaetara bidean*Tel: 945 46 14 80  
Plaza Nagusia, 6  
OTXANDIO**danoena****JAIETAN EGUNERO  
ogitartekoak  
hanburgesak  
plater konbinatuak  
eta pizzak**Plaza nagusia, 5  
OTXANDIO  
Tel.: 945 450 248LORA  
TABERNA · OTXANDIO  
Tel: 677 568 580 / 945 450 159 · lorataberna@gmail.com**Jai zoriontsuak  
opa deitsueguz!**  
Artekale, 31  
OTXANDIO  
Tel.: 945 450 093



# Glaukoma eta Tremenda Jauria taldeen kontzertuak izango dira santamañetan

Uztailaren 21ean eskainiko dituzte zuzenekoak, Zornotzako Zirkinik Bez erromeria taldeagaz batera



Glaukoma taldea.

**Gaztetxean ere musika kontzertuak izango dira: Ezetaerre galiziarrek eta On! ondarroarrek zuzenekoak eskainiko dituzte**

**EGITARAUA • J.D.**

Gazte Egunagaz hasiko dituzte Otxandioko santamaña jaiak, datorren asteko zapatuan. Ekitaldiz betetako zortzi jaiegun izango dira. Musikari dagokionez, kontzertu nagusiak uztailaren 21erako prestatu dituzte, zapatu gauerako: Glaukoma talde

tolosarraren dance hall, reggae eta rap doinuek, Tremenda Jauria madrildarren reggaeton feministak eta Zirkinik Bez zornotzarren erromeriak osatuko dute jaialdia.

Gazte Egunean ere musika kontzertuak antolatu dituzte gaztetxean: Ezetaerre rap talde galiziarra

eta On! rock talde ondarroarra arituko dira zuzenean jotzen. Horren ostean, jai giroak aurrera jarraituko du DJ baten laguntzagaz.

Jaietako txupinazoa uztailaren 17an jaurtiko dute, martitzen arratsaldean. Aurten Otxandioko Udala Banda izango da txupina pizteko arduraduna, urte askoan egindako lanaren esker on moduan. Azken urte bietan txupinazoaren ekitaldian egin izan den Katalintxuren jaitsiera —elizako kanpandorretik udaletxeko balkoira sokan eskegita— aurten ez dute egingo.

Otxandio kantuzalez beteko duen Kantu Eguna —uztailak 15—, Santamaña Eguna —uztailak 18— eta 1936ko bombardaketan hildakoak oroitzeko egingo duten ekitaldia —uztailak 22— dira jaietako beste egun eta ekitaldi garrantzitsu batzuk.

**Karpa morea**

Udalaren eta Bagaizan taldearen ekimenez, uztailaren 21ean karpa morea jarriko dute plaza inguruan, 20:00etatik 01:00etara. Ekimen berriak hainbat helburu ditu: herritarrek indarkeria sexistaren gain kontzientziaztea, informazioa banatzea, iritziak jasotzea... Gaiari adituak diren pertsona bi egongo dira standean. Horregaz batera, iaz protokolo bat landu eta tabernaz taberna banatu zuten, tabernariak indarkeria kasuren bat ikusiz gero zelari jokatu jakin zezaten. Aurten findu eta osatu egin dute protokolo hori, eta berriro banatu diete tabernari.

# Jaietan jokatu den Arabako bigarren mailako aizkolari txapelketan Luis Polancok parte hartuko du



Polanco iaz Otxandion egin zen aizkora desafioan.

**EGITARAUA • JOSEBA DERTEANO**

Luis Polanco aizkolari otxandiarrak Arabako bigarren mailako txapelketan parte hartuko du uztailaren 22an. Federazioko txapelketa ofizial batean parte hartuko duen lehen aldian izango da. Herri kirolak protagonista izango dituen arratsaldea ingude-altxatze saioagaz hasiko dute, 18:00etan. Horren ostean hasiko da aizkolarien lana. Lau enbor ebaki beharko dituzte: kanaerdiko bi eta 60 ontzako bi.

Neurriko lana da Polancorentzat. “Ondo dator kidan lana da. Oraindik aizkoran nahi beste soltutarik ez dudanez, enbor handietan hobeto aritzen naiz. Oinarri zabalagoa du eta mantentzeko errazagoa da”, adierazi du aizkolari otxandiarrak. Txapelketan duen helburua “ahalik eta lanik txukunena” egitea da, baina bere buruari “aurrean ibiltzeko”

aukerak ikusten dizkio. Abuztuan Euskal Herriko hirugarren mailako txapelketan parte hartzeko asmoa du.

**Pilota partiduak plazan**

Jaietako kirol eskaintzaren barruan, pilota partiduekin gozatzeko aukera egongo da plazako frontoi irekian. Uztailaren 18an, Santamaña egunean, izango da jaialdia, 17:30ean. Partidu bi izango dira: Olatz Arrizabala-Nagore Bilbao eta Leire Etxaniz-Nagore Aramendi bikoteek neurtuko dituzte indarrak lehenengoan, eta Aritz Lasa-Ibon Urrejola eta Unai Albarado-Iñigo Pascual bikoteek bigarren.

Egun berean, baina lehenago, 13:00etan, gazte-txoen arteko pilota partiduekin gozatzeko aukera egongo da frontoian.

## Ondo pasau jaixetan!!



**%10eko DESKONTUA**

lor dezakezu gurekin harremanetan jarrita

**NATURA · EUSKARA · KIROLA · PERTSONAK**

945 45 03 01 info@koikiliaterpetxea.eus  
Artekale 17, Otxandio - Bizkaia

[www.koikiliaterpetxea.eus](http://www.koikiliaterpetxea.eus)



## Axpe estankoa

Tel. 945 450 066 · Plaza Nagusia, 7 · OTXANDIO



**HONTZA EXTREM**

Denonizako ABENTURA PARKEA

Tel.: 633 468 947  
[www.hontzaextrem.com](http://www.hontzaextrem.com)



# "Herriko jendea 60 urtez Otxandion musika jotzen gabiltzanokin gogoratzea benetan pozgarria izan da"

Santamaña jaietako hasiera emango dien txupinazoa jaurtitzeko arduradunak izango dira Otxandioko udal bandako kideak; txupinazoa hilaren 17an izango da



Otxandioko udal bandako gaur egungo kideak.



Bandako kideak jaien hasierako danborradan.



Bandakoak udaletxeko plazan.

## TXUPINAZOA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Musikak garrantzi berezia izaten du Otxandioko jaietan, herriko kaleak zuzeneko musikagaz girotuta egoten baitira herriko bandari esker. Aurten uztailaren 17an hasiko dira jaiak eta Otxandioko bandak inoizko protagonismo-rik handiena izango du, herriko musikariak izango baitira aurtengo pregoia irakurri eta txupinazoa jaurtiko dutenak. "Sorpresa izugarria izan da. Herriko jendea 60 urtez Otxandion musika jotzen gabiltzanokin gogoratzea benetan pozgarria izan da", adierazi dute musika bandako kideek. Bestalde, udaletxeko balkoitik zer esango duten oraindik erabaki barik dutela jakitera eman dute.

Pregoa irakurtzeaz gain, txupinazo egunean jaietako hasiera eman eta urteroko zitagaz bat egin beharko dute bandakoek. "Txupinazoa jaurti eta arrapaladan plazara jaitsi beharko dugu, urtero lez danborradan jo beharko dugu eta", jarraitu dute.

## Jaietako ekitaldiak

Danborradaz gain, besteak beste, Santamaña egunean eta San Martin egunean ere jotzen dute Otxandioko udal bandako kideek. Hala ere, jaietako amaiera emateko unean izaten da eurentzat

unerik hunkigarriena. "Agur Santa Marina momentua izugarria izaten da, guretzat jaietako unerik berezi eta politena", adierazi dute.

## Banda, galzorian

Karlistada sasoirako sortu zen Otxandioko banda, eta garai gogorak bizi izan ditu. Birritan desagertu zen taldea, eta egun ere galzorian dagoela ikusten dute musikariek. "Gaur egun dagoen moduan, ez diogu etorkizun handirik ikusten bandari. Ez daukagu laguntza handirik eta hori aldatzen ez bada, denbora gutxian desagertu egingo da", aitortu dute musikariek, penatuta.

Araiako bandagaz batera jotzen dute musikariek, eta herrian zuzendari bat beharrezko ikusten dute. "Otxandion zuzendari bat behar dugu, hori barik ezinezkoa izango baita banda hau suspertzea", adierazi dute. Musikarientzat, suspertze horretan udalak lan egin beharko lukeela uste dute. "Momentu honetan ez dago hazirik landatuta, eta horretan lan egin beharko lukete kultura arloko zinegotziek", esan dute. Hala ere, hilaren 17an 19:00etan udaletxeko balkoitik jaurtiko duten txupinazoak bandari indarra eta bultzada bat ematea espero dutela aitortu dute.

**Danborradan, Santamaña eta San Martin egunean eta jaietako amaiera emateko unean joko dute Otxandioko udal bandako kideek; baita dieran ere**

■



Bandako kideak Katalintxugaz batera.



1958 inguruko argazkia.



# Jaiak!

Zornotza  
2018ko UZTAILA



*Zornotzako jaietan egunak zein gauak denonak dira.  
Ez beti da ez!*






**Zornotzako jaiak 2018****Uztailak 14, zapatua****09:00** Ibaizabal erreka. UMEEN ARRANTZA LEHIAKETA.**15:00** Zelaieta parkea. DUATLOI TXIKIA.**18:00** Zubiondo parkea. BIZIKLETA EGUNA.

Zelaieta parkea. KOADRILEN ARTEKO GINKANA.

**22:00** Ixerbekoa. BELDUR BARIK GUNEA.**22:30** Zubiondo plaza. Kontzertua DOCTOR DESEO.**24:30** Ixerbekoa. Erromeria ZIRKINIK BEZ eta Alkoholemia Karpa.**Uztailak 15, domeka****11:30** Amorebieta IV frontoia EMAKUMEEN II. ESKUPELOTA eta PALA TXAPELKETA.**12:30** Andra Mari plaza · Gernika plaza · San Juan Kalea Musika kalean GAZTEDIKO GAITEROAK  
Kalbarioa · Euskal Herria plaza · Harrison Musika kalean KITTU  
Zezilia Gallartzagaitia · Abasolo apezpiku · Sabino Arana Musika kalean ALEX ETA LANDER TRIKITILARIAK.**20:00** Herriko plaza. Pregoia, txupinazoa eta kalejira, Mairuek Gaztedi, Bermeo eta Amorebieta-Etxanoko, erraldoi eta buruhandien konpartsak, gaitero eta txistulariak.**20:30** Kalbarioa · Euskal Herria plaza · Harrison parkea Kaleko Musika ALWAYS DRINKING eta MARCHING BAND.**22:00** Kontzertua WICKED WIZZARD eta REINCIDENTES.**23:00** Zubiondo parkea. Kontzertua PANCHOS.**Uztailak 16, astelehena****Goizean** · Larrea · KARMENGO JAIA. Meza, bertsolariak, UDABARRI dantza taldea, eta Euskal erromeria TRIKI PIU taldearekin. Ostean Larreako landetan HERRI KIROLAK.**11:00** Herrian zehar. UDAZKEN taldearen kalejira.**11:00-14:00 / 16:00-19:00** Nafarroa aparkalekua UME ETA GAZTETXOENTZAKO UR PARKEA (2+ urte).**18:00** Amorebieta IV frontoia PILOTA PARTIDA PROFESIONALAK Agirremaaltoa-Oliden vs Carregal-Ibarloza eta Urrutikoetxea-Larunbe vs Bengoetxea-Albisu.**19:00** Zelaieta parkea. TRAFIKO ISTRIPU SIMULAKROA.**21:30** Herriko plaza. BERTSOLARIAK Etxahun Lekue, Oihana Iguaran, Arkaitz Estiballes eta Maddalen Arzallus.**22:00** Zubiondo plaza. Kontzertua ALAIN CONCEPCIÓ.**Uztailak 17, martitzena****11:00-14:00 / 16:00-18:00** Zelaieta parkea. UME ETA GAZTETXOENTZAKO FUTBOL3x3, BUBBLE SOCCER ETA BUNGEE BASKET**19:00** Andra Mari plaza. Antzerkia GANSO&CIA "Babo Royal"**20:30** Ixerbekoa. KOADRILEN ARTEKO PLAY BACK LEHIAKETA.**22:00** Zubiondo plaza. Kontzertua GUDA DANTZA eta ITACA BAND.**22:30** Herriko plaza. DANTZA COMPAÑÍA MADUIXA "Mulier".**Uztailak 18, eguztena****11:00-14:00** Zubiondo plaza. UMEENTZAKO TAILERRAK eta GAZTETXOENTZAKO MULTIABENTURA PARKEA (8+ urte).**19:30** Zubiondo plaza. ZUMBA.**20:00** Zelaieta parkea. Kontzertua RUPER ORDORIKA.**22:00** Herriko plaza. Antzerkia MARKELIÑE 'Chef Nature'.**Uztailak 19, eguna****17:00** Ibaizabal erreka. KOADRILEN ARTEKO PIRAGUA JAITSIERA.**18:00** UMEEN DANBORRADA.**18:30** Amorebieta IV Frontoia PALA PARTIDAK. Herriko Txapelketaren finalak.**20:00** Gernika plaza. Antzerkia TRAPUZHARRA 'Sefini'.**22:30** Zubiondo plaza. Kontzertua PURO RELAJO.**Uztailak 20, barikua****13:00** Kalbario plazatik KOADRILEN KALEJIRA.**15:00** Ixerbekoa. BERTSO BAZKARIA Aitor Bizkarra eta Txaber Altube.**17:00** Herriko plaza. ALDI BEREKO 50 XAKE PARTIDA.**18:00** Luis Urrengoetxea kalea. ORKRESTA ELEKTROTARANGA.**20:30** Zelaieta parkea. TXISTULARIEN XIX. KONTZERTUA Artista gonbidatua Kutxi Romero eta AIDAE.**22:00** DANBORRADA Ibilbidea: Txiki Otaegi, San Pedro, San Miguel, San Juan, Nafarroa, Ibaizabal, Gudari, Herriko plaza**22:00** Ixerbekoa. BELDUR BARIK GUNEA.**23:30** Zubiondo plaza. Kontzertua INUN.**23:30** Ixerbekoa. Kontzertua ZEA MAYS eta ADRIANA GAULTIER DJ.**Uztailak 21, zapatua****09:00** Boroa poligonoa. USAKUME TIROKETA.**10:00** Zubiondo parkea. BASKET 3x3.**10:30** Zubiondo parkea. MARMITAKO LEHIAKETA.**11:00** Gure Kirolak bolatokia UMEENTZAKO BOLO TXAPELKETA.**12:30** Andra Mari plaza · Gernika plaza · San Juan Kalea Musika kalean URRUTIA ANAIK TRIKITILARIAK.  
Kalbarioa · Euskal Herria plaza · Harrison Musika kalean GAZTEDIKO GAITEROAK.  
Zezilia Gallartzagaitia · Abasolo apezpiku · Sabino Arana Musika kalean KITTU.**17:00** Urbano Larruzea kalea. XXXVII. XAKE TXAPELKETA Agustín Zamakona Memoriala.**18:00** Amorebieta IV frontoia. ZORNOTZAKO IV. MASTER KAIOLA Finalak.**20:00** Andra Mari plaza/ Gernika plaza Kaleko Musika IRULITXA FANFARREA.**21:00** Gure Kirolak bolatokia KARMENETAKO VIII.**21:30** Kalbarioa · Euskal Herria plaza Kaleko Musika IRULITXA FANFARREA.**22:00** Ixerbekoa. BELDUR BARIK GUNEA.**23:00** Zubiondo plaza. Kanp berbera LONDON ORKESTRA. Ixerbekoa. Kontzertua HESIAN eta BATEK DAKI.**Uztailak 22, domeka****Goizean** Zezilia Gallartzagaitia. BASERRITARREN AZOKA  
**Egun guztian** AITITE-AMAMEN JAIA: meza, aureskua, erromeria.**11:00** Zubiondo parkea.

AMOREBIETA-ETXANOKO VII. JAI LASTERKETA.

Jauregibarria ONTZI-MODELISMOAREN ERAKUSTALDIA.

**12:00** Jauregibarria parkea. ARKU TIROKETA.**12:30** Andra Mari plaza · Gernika plaza · San Juan Kalea KITTU  
Kalbarioa · Euskal Herria plaza · Harrison Musika kalean AINHOA eta ANDER TRIKITILARIAK  
Zezilia Gallartzagaitia · Abasolo apezpiku · Sabino Arana Musika kalean GAZTEDIKO GAITEROAK**18:00** Zelaieta parkea. KOADRILEN ARTEKO HERRI KIROLA.**20:00** Herriko plaza. Dantzatzeoak IRUNGO MUSIKA BANDA.**22:30** Jauregibarria. SU ARTIFIZIALAK Piroteknia Astondoa**23:00** Zubiondo plaza. Kontzertua ZE ESATEKI!**Uztailak 27, barikua | MOZORRO EGUNA. KUBA!****12:00** Kalbario · Zezilia Gallartzagaitia · Gernika Plaza BETISUA TXARANGA.**18:00** Urritxe Futbol Zelaia. SDA TALDEAREN AURKEZPEN-PARTIDA VII. Amorebieta-Etxanoko Udala Saria.  
Zelaieta parkean UMEENTZAKO PERKUSIO TAILERRA**19:30** Gane-San Miguel Kalea. HAMAIIA KOLORE.**20:00** Zezilia Gallartzagaitia · Andra Mari plaza · Gernika plaza Kaleko musika SOPA LOCA  
Kalbario/ Euskal Herria plaza Kaleko musika LOLO CALLEJO.**22:00** Luis Urrengoetxea. Kaleko musika EONIAN ELEKTROTARANGA.**22:30** Zubiondo plaza. Kontzertua HAVANA 537.ekin S. Coop.  
Arriagane Industrialdea (Boroa auzoa)  
48340 AMOREBIETA  
www.ekin.es



# Doctor Deseo, Reincidentes, Zea Mays eta Hesian oholtza gainean, Zornotzako jaietan

Uztaillaren 15ean emakume solidario talde batek jaurtiko du txupinazoa udaletxeko balkoitik



Jaien aurkezpenean ateratako argazkia.

## EGITARAUA • JONE GUENETXEA

Prest dago dena uztaillaren 14tik 22ra Zornotzako jaiak ospatzeko. Aurten, astebeteko programazioa ekitaldiz gainezka dator. Punta-puntako taldeen kontzertuek girotuko dituzte Zornotzako jaiak. Doctor Deseo, Reincidentes, Zea Mays eta Hesian

taldeak dira adibideetako batzuk. Erromeriei dago kienez, Zirkinik Bez talde zornotzarrak kontzertua emango du uztaillaren 14an, Ixerbekoan. Biharamunean izango da txupinazoa, uztaillaren 15ean. Emakume solidario taldea aukeratu du udalak horretarako. "Gure gizartean emakumeek egiten duten

**XIX. Txistularien Kontzertua uztaillaren 20an izango da. Aurten, gainera, gonbidatu berezia izango dute: Kutxi Romero Marea taldeko abeslaria**

lana azpimarratzea eta ikusaraztea da helburua", azaldu dute udal arduradunek. Caritas, Udalen, Kidenda eta Minbiziaren aurkako elkarteetako bost kide izango dira udaletxeko balkoira igoko direnak pregoia irakurtzera eta txupinazoa jaurtitzera.

## Kutxi Romero txistulariekin abeslari

Uztaillaren 20an, barikuan, herrian tradizio handia duen danborradak zeharkatuko ditu kaleak. XIX. Txistularien Kontzertua ere bariku horretan izango da. Aurten, gainera, gonbidatu berezia izango dute: Kutxi Romero Marea talde nafarreko abeslaria.

Kaleko ekintzek protagonismo handia izango dute jaietan. Arte eszenikoan arloan, Ganso y Cía, taldeak *Bobo Royal* ikuskizun dibertigarria eskainiko du. Bestalde, Maduixa dantza taldeak 2017ko Umore Azoka irabazi duen *Mulier* lanagaz bisitatuko du Zornotza. Markeliñe herriko taldeak umeei zuzendutako *Chef Nature* lana aurkeztuko du. Irudimenez eta erritmoz betetako jate txiki bat irudikatuko dute. Trapuzaharra taldeak *Sefini* antzezlan eskainiko du jaietan.

## Bertso saioa plazan

Uztaillaren 16an, astelehena, bertsozaleei zuzendutako saioa egongo da, 21:30ean, herriko plazan. Etxahun Lekue, Oihana Iguaran, Arkaitz Estiballes eta Maddalen Arzallus bertsolariak igoko dira oholtzara

# Pintzelak Elkarteak sortu du aurtengo Karmen jaietako kartela, eta emakumeari egiten dio erreferentzia

## KARTELA • J.D.

Jai Batzordeak horrela eskatuta, Zornotzako Pintzelak Elkarteak diseinatu du aurtengo jaiak iragarriko dituen kartela. Emakumearen figura azpimarratzea izan dute helburu, beti ere jaiari begirako kartela dela kontuan hartuta.

Marrazketarako hainbat teknika erabilia, hiru osagai nagusi batu dituzte azken irudian: jaietako zapia pintura akrilikoagaz egin dute, zapia jantzita duen emakumea marrazki bat da eta zerua estaltzen duen lila kolorea akuarela teknika erabilia lortu dute. "Jai Batzordearen iradokizunak kontuan hartuta, gure iritzia txertatzen saiatu gara", adierazi du Pintzelak Elkarteko kide Iñaki Olabarriak. Elkarteko 20 bat lagun aritu dira lanean.

## Enkarguz egindako lana

Aurten Jai Batzordea osatzeko irizpideak berriztuta, batzarretan partaidetza "oso handia" izan dela azpimarratu du Luciano Martinez zinegotziak. Arlo askotako 17 bat ordezkari batu izan dira. Iazko moduan, aurten ere kartela enkargu bidez egitea erabaki dute, baina, pertsona bati beharrez, elkarte bati eskatu diote.

**Jaietako zapia pintura akrilikoagaz egin dute, zapia jantzita duen emakumea marrazkia da eta inguruko zerua akuarela teknika erabilia lortu dute**



Pintzelak Elkarteko hainbat kide, diseinatu duten kartelagaz.

**Azkonizaga**

**Edari banaketa**  
GARAGARDOAK • ARDOAK • LIKOREAK  
ESNEA • URA • FRESKAGARRIAK

Lejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58  
azkonizaga@azkonizaga.com

**uxarte**  
SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815  
www.uxarte.com

ZABALIK  
OSTIRALETAN ETA  
ASTEBURUETAN

ASTEAN ZEHAR  
ENKARGUZ  
Gutxienez 15  
lagunekoko taldeentzako

**Z@S**  
informatika

ORDENADOREAK  
OSAGARRIAK  
KONPONKETAK  
MANTENIMENDUA

ENPRESETARAKO ZERBITZUA

Tel.: 94 630 12 12  
info@zasinformatika.com  
Gregorio Mendibil 9 behea  
(Amorebieta-Etxano)



# Zornotzako jaietako marmitako txapelketaren bueltan, Euskaraldiaren proba edo simulakroa egingo dute

30 bat lagun dabilta Zornotzan euskararen erabileran pauso bat emateko asmoz azaroan egingo den Euskaraldia ekimena prestatzen



Nabarmentzekoa da, bestalde, jaietako simulakroan parte hartzen dutenak [zornotzarrak.eus](http://zornotzarrak.eus) webgunean inskribatuko dituztela

Euskaraldia sustatzen dabilta taldeko zenbait kide, astelehenean, Zelaieta inguruetan.

## EUSKARA • MARKEL ONAINDIA

"Ilusio handia daukagu, eta horregatik bakarrik merezi du. Ekimen polita da, sekula egin bakoia. Ilusioari ate bat zabaldu dio berriro". Julen Nafarrateren berbak dira. Zornotzan Euskaraldia sustatzen dabilen taldeko kidea eta herriko euskara teknikaria da Nafarrate. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean Euskal Herrian egingo den ekimena prestatzen 30 bat laguneko taldea dabil Zornotzan, eta pozik daude parte-hartze handi horregatik. Martxoan hasi ziren elkartzeko, eta herriko hainbat elkartegaz gaia konpartitu ostean, ekainaren 15ean aurkezpena egin zuten ekimen ibiltari batez. Orain, erronka berezi bat dute jaien harira: Euskaraldiaren proba edo simulakroa.

Marmitako txapelketaren egunean egingo da simulakroa, zita gastronomiko hori arrakastatsua izaten dela aprobeztatuta. "Euskaraldiaren aurretik

probatxo edo simulakro bat egitea pentsatu dugu, gure burua probatzeko: ikusteko zelan moldatzen eta sentitzen garen ahobizi eta belarriprest rola aukeratuta. Izan ere, hizkuntza ohitura batzuk aldatu beharko ditugu ariketa honez. Adibidez, ez gaude ohituta elkarrizketa batzuk ele bitan egitera", dio Nafarratek.

## Konpromisoa eskatzen

11:00etan ekimenean izena emateko mahaia ipiniko dituzte, hiru lekutan. Pegatina bat emango diete partaideei, ekimenagaz identifikatzeko, eta ahobizi edo belarriprest rola hartuko du euretako bakoitzak. Nafarrateren esanetan, herritar bakoitzak konpromisoa hartzea bultzatu gura dute, aldeotasuna agertzeko ekintza batetik harago. "Euskararen alde egotea baino, euskararen alde egitea. Ahobizi izatekotan, horrek dakartzan kon-

promisoak hartzea; marmitakoa kozinatzen duzun bitartean, euskaraz egitea. Belarriprest bazara, zuri euskaraz hitz egitea eskatzen ari zara", adierazi du Nafarratek. Nabarmentzekoa da, bestalde, jaietako simulakroan parte hartzen dutenak [zornotzarrak.eus](http://zornotzarrak.eus) webgunean inskribatuko dituztela baita ere, eta, horrela, automatikoki azaroko Euskaraldirako izena emanda egongo direla.

## Gazteak aktibatze asmoz

Jaietarako prestatu duten ekimen bereziaz aparte, gazteen artean indarra egiteko ildo bat jorratuko dute, erabilera handitzeko helburuagaz. "Gazteen artean lanketa berezi bat egin gura dugu, euren artean euskara erabiltzea oso garrantzitsua delako. Zornotzako gazteei dei berezi bat egiten diegu, animatu eta parte hartzeko", azaldu du euskara teknikariak.



Ondo pasa jaietan!  
**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA



0 -18 URTE  
**HAZI eta HEZI gurekin**



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA



**ibaizabal**  
IKASTOLA



Larrea z/g - Amorebieta-Etxano - Tel.: 946 732 950  
[zornotza@ikastola.eus](mailto:zornotza@ikastola.eus) - [www.zornotzaikastola.eus](http://www.zornotzaikastola.eus)



# "Aurrera egin gura dugu, abesti berriak sortu, baina ez dugu horretarako tarterik aurkitzen"

Uztailaren 14an kontzertua eskainiko du Zornotzan bertako Zirkinik Bez erromeria taldeak



**Xabier Bengoa Bilbao**  
Gitarrista (1998)  
**Ander Olmo Garro**  
Baxu-jotzailea (1989)  
**Maialen Kaltzakorta Intxausti**  
Abeslaria (1994)  
**Erlantz Esparta San Vicente**  
Trikitia (1992)  
**Markel Atutxa Gandarias**  
Bateria-jotzailea (1993)



**150 kontzertutik gora eskaini ditu Zornotzako Zirkinik Bez erromeria taldeak; urte hauetan guztietan pasarte asko batu dituzte**

Zirkinik Bez taldeak Matienan eskainitako kontzertuaren irudia.

**ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI**

Ez dute datarik jarri, baina, zaila izan arren, agertokiei agur esango die Zirkinik Bez taldeak. Guztiak batzeko dituzten zailtasunen ondorioz, bide berriei ekingo diete Maialenek, Markelek, Xabierrek, Anderrek eta Erlantzek, musikagaz lotuta zein ez. Aurretik Zornotzan, Otxandion eta Bilbon joko dute. Gernikako jailetan ez jotzearen arantza dute. Markel, Maialen eta Xabier ANBOTOGaz egon dira.

**Agur esango die agertokiei Zirkinik Bez taldeak. Noiz?**

**Markel Atutxa:** Hori da asmoa. Oso gutxitan batzen gara denok, lana edo ikasketak direla-eta. Ia hamar urte dira hasi ginenetik eta lehengo abestiekin jarraitzen dugu. Aurrera egin gura dugu, abesti berriak sortu, baina ez dugu horretarako tarterik aurkitzen. **Maialen Kaltzakorta:** Abesti berriak eskaintzeko, denak ondo irteteko, entseguak egin behar dira, talde lez denbora bat eskaini behar zaio. Eta ezin elkartu bagabiltza... Azkenengoa kontzertu berezia izatea gura dugu, baina ez da erraza data bat topatzea.

**Penagaz?**

**M.A.:** Bai, penagaz.  
**M.K.:** Apur bat. Baina erromeria talde moduan ahal izan dugun guztia eman dugulakoan nago. Berrituz bueltatuz gero, geuk sortutako abestiekin bueltatu beharko genukeela uste dut. Zornotzako saskibaloi taldearentzat sortu genuen abesti bat, eta Gernikako Ibilaldirako lehiaketarako ere beste bat. Gustatzen zait hori, baina astirik ez dugunez...

**Xabier Bengoa:** Iaz batu nintzen ni taldera, eta bizitako esperientzia oso ona izan da. Ondo aprobetxatu dut urte hau, oroitzapen on bat daukat.

**Noiz sortu zen Zirkinik Bez? Nola?**

**M.A.:** 2009an hasi ginen lehen entseguenkin Erlantz eta biok. Denbora batera Ander batu zitzaigun. Bateria jotzen nuela entzun ostean, Erlantzek taldea sortzea planteatu zidan. Langunartean, ia pentsatu barik hasi nintzen bateria jotzen ikasten. Eskolarik jaso barik, nire kontu. "Egingo duzu zerbait!" esan zidan eta aurrera egin genuen. Denboragaz hobetzen joan naiz. Urteetan taldea aldatuz joan da.

**Oraindik jendea batzen dute erromeria taldeek?**

**M. A.:** Bai, gero eta gehiago gara. Bere lekua hartu dute, espazio garrantzitsua.

**X. B.:** Jaietan ia egunero dago erromeria talderen bat; hiru bat orduz jo, eta bete egiten dute plaza.

**M.K.:** Zornotzan ere plaza beteko dugu erromeria taldeok, ziur. Hori bai, hiruzpalau baserri dauden herri txikietan zailagoa da!

**Uztailaren 14an herrian joko duzue. Plaza berezia da?**

**M. A.:** Bai, berezia da, eta oso gogotsu gaude.

**M. K.:** Bere xarma du, ezagutzen gaituzte.

**X. B.:** Lehenengoz jo nuenean, iaz, berezia izan zen.

**Kontatu daitekeen pasarterik?**

**M. A.:** 150 kontzertutik gora dira, pasarte piloak. Orain hilabete Nafarroan euri zaparrada itzela bota zigun, estalperik gabeko eszenatokian; dena estali zuten teknikariek, geu barne, eta jotzen jarraitu genuen. Beste behin Agurainen, 07:00etan hasi ginen jotzen.



# Emakumeak eta hauek gizarteari egiten dioten ekarpena izango dira pregoiaren protagonistak

Ongi Etorri Errefuxiatuak, Caritas, Udalen, Kidenda eta MAEE elkarteetako ordezkariak igoko dira balkoira jaiari hasiera ematen dien pregoia irakurtzera



Emakume solidario guztien izenean irakurriko dute pregoia Mari Nieves Gilek eta Txaro Larrinagak.

**Emakumeek gizarteari egiten dioten ekarpena haintzat hartzeko deia egingo dute, besteak beste, uztailaren 15ean irakurriko den pregoian**

## PREGOIA • ARITZ MALDONADO

Rosa Mari, Edurne, Begoña, Agurtzane... ehunka emakume zornotzar ari da beharrean egunero, herri solidarioago eta bidezkoago bat lortzeko. Zenbait elkartetan antolatuta, ekarpen handia egiten diote alor guztietan Zornotzari. Jardun hori aitortzeko, herrian lan egiten duten hamar ka taldeetako bost aukeratu dituzte aurtengo jaietako pregoia irakurtzeko. Andoni Agirrebeitia alkatearen berbetan, bertako emakumeekin zuen zorra kitatuko du horrela Zornotzak. Ongi Etorri Errefuxiatuak, Caritas, Udalen, Minbizia-aren Aurkako Espainiako Elkarte eta Kidenda elkarteak ordezkatzan dituzten emakumeak igoko dira udaletxeko balkoira. Guztien izenean, Mari Nieves Gilek eta Txaro Larrinagak irakurriko dute pregoia uztailaren 15ean. "Sorpres bat izan

da izendapena, eta beldur pixka bat ere badugu, emakume zornotzar guztien izenean irakurriko dugulako, baina gogotsu gaude". Urteak daramatzate elkarte guztiek gizarte alorrean beharrean. Gil, adibidez, Kidendako partaidea da. Bidezko merkataritzaren alde lan egiten duen elkarte hau orain 25 urte sortu zuen Miren Gerrikagoitiak. Udalen elkarteak 28 urte daramatza beharrean; egun 250 bazkide baino gehiago ditu. Bizkaiko Caritas da elkarte beterranoetako bat, izan ere, 62 urte daramatza egoera zaugarrian dauden herri-tarrei babes eskaintzen. MAEE 50eko hamarkadan hasi zen beharrean minbizia zuen jendeagaz, eta gaur egun ere beharrean jarraitzen dute bertako kideek. Ongi Etorri Errefuxiatuak elkartearen lana aktualitatearen lehen lerroan dago azken garaioan, zoritxarrez. Elkarte moduan, ibilbide

laburragoko elkarte izan arren, lan eskerga egin dute azken urteetan. "Emakumeok dugun kemenagaz eta indarragaz, elkarte hauek lan handia egiten dute, ekarpen handia egiten diogu gizarteari", azaldu du Gilek.

## Zornotza, herri solidarioa

Zornotza herri solidarioa dela uste dute protagonistek. Hala ere, erreleboa pasatzeko ordua ere iritsi dela uste dute. "Eguneroko lan hori da garrantzitsua, eta, beharbada, hori betetzeko zailtasunak eduki ditzake hainbatek. Hori dela-eta, dei egiten diegu gazteagoi herriko elkarteetara etortzeko", esan dute. Bakoitzak bere alea jarrita, Zornotza hobe bat lortuko dutelakoan daude. "Emakume gazteek euren kezka eta ardurak dituzte, eta horregatik antolatzen dira", dio Gilek.

**consulta HAR**  
MANU ACEVEDO  
Fisioterapeuta eta osteopata

**Jarri zure osasuna profesionalen esku**

**FISIOTERAPIA**  
MASAJEAK - ESKU-TERAPIA - SENDATZE FUNTZIONALA - ELEKTROTERRAPIA

**OSTEOPATIA**  
ESTRUKTURALA - ERRAIETAKOA - BUREZURREKOA

**E.P.T.E. ELEKTROLISIA KONTROL EKOGRAFIKOAREKIN**

R.P.S. 65/12


Konbenio, 6 behea 48340 AMOREBIETA Tel.: 946 300 713  
[www.consultagihar.com](http://www.consultagihar.com)

**ASTE BITARTEKO MENUA, ASTEBURUKO MENUA, MENU BEREZIA ETA KARTA**

**kanbio** Ondoko pasa jaietan!  
**J A T E T X E A**

San Migel Dudea auzoa | AMOREBIETA-ETXANO  
Tel.: 946 730 033





## Botikak

<b>BARIKUA, 6</b> · 09:00-09:00	<b>ASTELEHENA, 9</b> · 09:00-09:00
<b>GAZTELUMENDI</b> J.A. Abasolo 2 - <b>DURANGO</b>	<b>GAZTELUMENDI</b> J.A. Abasolo 2 - <b>DURANGO</b>
<b>GUTIERREZ, IBAN</b> Txiki	<b>GUARROCHENA, LIDE</b> Bide
Otaegi 3 - <b>ZORNOTZA</b>	Zahar 14 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>09:00-22:00</b>	<b>09:00-22:00</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis
Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>	Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>ZAPATUA, 7</b> · 09:00-09:00	<b>MARTITZENA, 10</b> · 09:00-09:00
<b>IRIGOIEN</b> Bixente Kapanaga 3 - <b>IURRETA</b>	<b>UNAMUNZAGA</b> Muruetatorre 2C - <b>DURANGO</b>
<b>GUTIERREZ, IBAN</b> Txiki	<b>GUARROCHENA, LIDE</b> Bide
Otaegi 3 - <b>ZORNOTZA</b>	Zahar 14 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>09:00-13:30</b>	<b>09:00-22:00</b>
<b>NAVARRO</b> Artekalea 6 - <b>DURANGO</b>	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis
<b>CAMPILLO</b> Montevideo	Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
etorb. 24 - <b>DURANGO</b>	<b>EGUAZTENA, 11</b> 09:00-09:00
<b>BAZAN DIAZ</b> Urribarri 5 - <b>DURANGO</b>	<b>BALENCIAGA</b>
<b>DE DIEGO</b> Intxaurren 22. - <b>DURANGO</b>	<b>EZKURDI PLAZA 8</b> - <b>DURANGO</b>
<b>MELERO, ROSA MARI</b>	<b>GUARROCHENA, LIDE</b> Bide
San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA</b>	Zahar 14 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>JAIO-OLABARRIETA</b>	<b>09:00-22:00</b>
Errekakale 6. - <b>ELORRIO</b>	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis
<b>MELERO, ROSA MARI</b>	Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA</b>	<b>EGUENA, 12</b> · 09:00-09:00
<b>09:00-22:00</b>	<b>BAZAN DIAZ</b> Urribarri 5 - <b>DURANGO</b>
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis	<b>GUARROCHENA, LIDE</b> Bide
Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>	Zahar 14 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>DOMEKA, 8</b> · 09:00-09:00	<b>09:00-22:00</b>
<b>SAGASTIZABAL</b>	<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis
Askatasun etorb. 19 - <b>DURANGO</b>	Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>
<b>GUTIERREZ, IBAN</b> Txiki	
Otaegi 3 - <b>ZORNOTZA</b>	
<b>09:00-22:00</b>	
<b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis	
Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b>	

## Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 26° / 15° ☀️	MARTITZENA 🌡️ 32° / 20° ☀️
DOMEKA 🌡️ 29° / 16° ☀️	EGUAZTENA 🌡️ 28° / 17° ☀️
ASTELEHENA 🌡️ 30° / 18° ☀️	EGUENA 🌡️ 25° / 17° ☀️

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



**GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA**  
 Ermodo, 11 DURANGO  
 Tel.: 946 201 663  
 gozatudurango@gmail.com  
 facebook: Gozatu Gozotegia


Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.



Etxeko printzesak 8 urte bete ditu. Zorionak, **Maddi** familiaren partez!



Zorionak, **Inhar!** Konturatu barik etxeko astokilotxue handi eiten dabil. Musu potolo potolo pilloa Intza, Irati, aitatxo eta amatxon partez!!



Holako musu erromantikorik igual ez, baina musu pilo bat emango dizkizugu astelehenean lanera bueltan zatozenean. Aprobetxatu azken egunak! Zorionak eta bizieta ederra izan dezazuela elkarrekin, **Bea** eta **Galder!**

## Eskelak



### Javier Urkiaga Amorebieta

Hileta-elizkizuna gaur, uztaileak 6, izango da, 18:00etan, Zornotzako Larreako Karmengo amaren santutegian.

*Nor egoten da gertu eguna heltzean?  
 Nor, leiho bat zabaltzen danean etxean?  
 Baina Etxahunek "aitite" diñon bakotxean agertuko zatxakuz gure bihotzean.*

Etxekoen partez



# “Lagunartean inoiz hamabi ordu ere egin ditugu jarraian dardo-jokoan”

Phoenix Summer Festival munduko dardo txapelketan lehiatuko da David Davila iurretarra, Seulen (Hego Korea). Uztailaren 6tik 8ra nazioarteko jokalaririk onenak batuko dira bertan

**AKUILUA** • AITZIBER BASAURI

**Martitzenean abiatu zen David Davila Seulera (Hego Korea), Phoenix Summer Festival munduko dardo txapelketan parte hartzerako. Joan aurretik egindako elkarrizketan pasioz egin du berba dardo-jokoaren inguruan. Dardoetan orduak eman arren, beti gehiagoren gogoz gelditzen dela aitortu du. Criquet eta 501 dardo-jokoetan aritzen da batez ere, eta 2017an jokalaria berri onena aukeratu zuten. Taldea 7-8 lagunek osatzen dute; bikoteka Xabi Aiestaran durangarragaz jokatzeko du.**

**Uztailaren 6tik 8ra bitartean Phoenix Summer Festival munduko dardo txapelketan lehiatuko zara. Urduri zaude?**

Oso urduri. Munduko onenekin jokatu dut. Gainera, ez naiz inoiz Europatik kanpo lehiatu. Urte osoan jokatzeko den Espainiako txapelketa irabazita lortu nuen saria, Seulera joatea. Azken saioan lortu nuen finalerako hamaseikoan sartzea.

**Zein da zure helburua?**

Disfrutatzea eta ikastea. Jokatzeko dudak txapelketa edo partida bakoitzean zerbait ikasten dut eta horretara noa, ikastera. Gainera, irabazi dut saria: Seulerako bidaia eta esperientzia bizi ahal izatea.

**Noiz hasi zinen dardoetan jokatzeko?**

Orain 14 bat urte. Durangoko taberna batean, lagunartean. Bikoteka jokatzeko genuen. Galzten zuen bikoteak denon Cola Caoa ordaintzen zuten. Arratsalde batean, gizon bat hurbildu eta dardo-jokorako taldea osatzeko lagun bi behar zituela esan zigun, liga bat

eta Espainiako Txapelketa jokatzeko. **Baietz esan zenuen.**

Apur bat ikaratuta gelditu ginen,

eta gehienok ezetz esan genuen. Batek esan zuen baietz eta taldean sartu zuten. Batera eta bestera joaten zen jokatzera, eta gu ikustera, orduan ez zen-eta online jokatzeko, orain bezala.

**Laguna ikusita animatu zinen?**

Behin Holandara bidaia irabazi zuten, Europako txapelketa jokatzeko sailkatu ostean. Orduan, geuk ere Iurretan talde bat sortzea erabaki genuen.

**Zenbat txapelketatan ari zara?**

Estatuko liga batean bikoteka eta Bizkaiko taldekako bitan; EAEko beste batean ere bai.



**David Davila Rodriguez**  
Dardo-jokalaria  
Iurreta | 1981

**Profesional moduan ari zara?**

Oraindik azken bultzada falta zait. 2014ra arte maila baxu-ertaineko jokalaria nintzen. Orduan, Espainiako Estatuko txapelketa bat irabazi nuen, erdi mailako kategorian. Dena den, benetako jauzia 2016an egin nuen. Serioago hartu eta gehiago entrenatzen hasi nintzen, maila igota. Emaizta onak izan ditut. Dardo-jokalaria oso onak daude, askok jokatzeko dute, baina mundu ezezaguna da. Durangaldean bizpahiru talde gaude, baina Bilbo inguruan, asko. Uste baino gehiago.

**Era berezian prestatu behar da?**

Norberak bere estiloa topatu behar du. Gorputza ahalik eta gutxien mugitu behar da, jaurtiketa errazteko; dardoari heltzeko erak daude. Hori guztia hobetu daiteke. Gainera, dardo mota asko daude. Probatu egin behar da. Konstantzia eta erregulartasuna behar dira.

**Entrenamendu ordu asko behar dira?**

Nik egunero jokatzeko dut, 15 minutu gutxienez. Batzuetan hiru ordu ematen ditut, besteetan bat, eta, inoiz, sei ere bai. Lagunartean inoiz hamabi ordu ere egin ditugu jarraian dardo-jokoan. Nire ustez, egunean ordu erdi bat jaurti behar litzateke.

**Dardo-joko asko daude ...**

Bai. Badago bat maila profesionalean dirua irabazteko aukera ematen duena: diana konbentzionala. Altxairuzko dardoen jokatzeko da, gehienetan 501era. Honetan zailagoa da dardoagaz jotzea. Nahiko nuke hortaz bizi, baina zaila da. Estatu espainiarrean 4-5 baino ez dira.

**Kirola da dardo-jokoa?**

Ez. Beharbada 2021eko Joko Olinpikoetan, bai. Beti ere, diana konbentzionala. Batez ere Ingalaterran, horretan baino ez dute jokatzeko. Nik liga bat jokatzeko dut Basaurin, eta hirutan joan naiz Avilara (Espainia), Londresen (Britainia Handia) jokatzeko munduko txapelketarako aukera irabaztera. Jokatzeko beharrezkoa da pintzakako praktikak eta zapatak jantzita joatea.

**Lau-hortza**

Mikel Uriguena Ruiz  
Irakaslea



**Heldu da ordua**

Azkenean esan digute zer egingo duten. Gardena dela dioen udalak hainbat urte behar izan ditu hori egiteko, baina, orain, durangarrok badakigu herri erdian 550 etxebizitza eraikiko dizkigutela eta horietako 120 babes ofizialekoak izango direla.

Herritarren parte-hartzea sustatzeagatik saria jaso zuten udal honek ere argi eta garbi utzi digu aurreko ostiralean aurkeztutako planak ez duela zertan udal bilkuraren onenetik jaso behar, dekretu bidez onartua izan daitekeela.

Garapen jasagarria ahotan etengabe darabilten erakundeek adierazi zuten 18 pisuko dorreak egitea trenbidearen lurperatzean inbertituriko dirua berreskuratzeko ezinbestekoa dela. Eta horregatik egingo direla. Herriaren beharrak hutsaren hurrengo direla, azken finean. Hori bai, badakite etxebizitzak alturan eraikitzea jasagarriagoa dela, eta esan zuten. Infografia ederrak aurkezteaz gain arnagune berdea kontzeptua erabili zuten, nahiz eta parkearen eta zuhaitzen ezaggarriak zehazteke dauden. Kutsadurak egunero itotzen duen herrian dorreen eraikuntzari loturiko trafikoa eta auto kopuruaren hazkunderen inguruan ere, hitzik ez. Maisuak dira.

Gauzak horrela, zu, irakurle, protesta egitera eta ahotsa altxatzera gonbidatzen zaitut. Beti esango dute etengabe ke-xaka ari garela. Ba ez dezatela ke-xatzeko hainbeste arrazoi eman. Dena dela, izpiritu kritikoa ezinbestekoa da gizarte batek aurrera egin dezan. Ezer egiten ez dugun bitartean beste batzuk etengabe ari direlako lanean. Heldu da ordua.

**TABIRA**  
Eguneko zentroa eta Egoitza gerentzia berria  
Intxaurren, 27 DURANGO  
944 668 852 / 690 622 499  


**Hartu atsedenalditxo bat**

[www.cuidamosdetusmayores.com](http://www.cuidamosdetusmayores.com)

- Zaintza eta zerbitzua adindunei •
- Prebentzio Sanitario, Psikologiko eta Fisioterapeutiko handia •
- Ile-apainketa eta podologia zerbitzua •
- Aisialdia eta eguneko ibilaldiak •
- Terapia okupazionala •
- Aldi baterako egonaldiak •
- Herriguneko instalazioak ongi komunikatuta •
- Zaintzailearen atsedena •
- Lan talde bikaina •